





Hezkuntza Proiektua

Haurreskolak

AURKIBIDEA



0. AURKUBIDEA.	1
1. AURKEZPENA.	3
2. ZER DA HAUR HEZKUNTZA?	4
3. 0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAREN HELBURUAK.	4
4. HAUR HEZKUNTZAREN GAITASUNAK.	5
5. HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA.	6
5.1 Nortasun ikurrak.	10
5.1.1 Testuinguruaren azterketa.	10
a. Ingurune fisikoa.	10
b. Ingurune soziala.	11
5.2 Helburuak.	11
5.3 Edukiak.	11
5.4 Haurreskolen hezkuntza ildoak.	12
5.4.1 Oinarri teorikoa.	12
5.4.2 Eguneroko lana Haurreskolak Partzuergoan.	12
5.4.3 Nola zehaztuko ditugu, praktikan, printzipio teoriko horiek?	13
1. ALDAGAIA: JARDUEREN ANTOLAKETA.	14
a. Haurreskolak Partzuergoko Hezkuntza Proposamenak.	17
a.1 Eguneroko egitekoak.	17
• Sarrera eta irteera.	18
• Korroa.	19
• Bazkaria.	19
• Aldatzeko ordua eta higieena.	20
• Atsedena.	21
a.2 Jolasa.	22
a.3 Psikomotrizitatea.	25
a.4 Aparteko jarduerak.	26
2. ALDAGAIA: ESPAZIOEN, DENBOREN ETA TALDEEN ANTOLAKETA.	27
a. Espazioak.	29
b. Denbora.	32
c. Taldeak.	33
3. ALDAGAIA: MATERIALEN ANTOLAKETA ETA AUKERAKETA.	34
4. ALDAGAIA: PERTSONAL BALIABIDEEN ANTOLAKETA.	38
5. ALDAGAIA: BEHAKETAREN ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA.	40
a. Haurren garapen-prozesua.	42
b. Familien parte-hartzea.	44
c. Haurreskolaren hezkuntza -eta antolakuntza- interbentzioa.	45
6. ALDAGAIA: HEZKUNTZA-ELKARRERAGINEN ANTOLAKETA.	46
a. Hezitzaileen eta haurren arteko elkarreraginak.	49
b. Haurren arteko elkarreraginak.	51
c. Hezitzaileen arteko elkarreraginak.	51
d. Familien eta hezitzaileen arteko elkarreraginak.	52
e. Beste elkarreragin eta/edo elkarlan batzuk kanpo-eragileekin.	54

5.5. Zenbait gaiari buruzko erabakiak.	55
5.5.1 Aniztasuna errespetatzea Haurreskolak Partzuergoan.	55
5.5.2 Hezkuntza-premia berezien tratamendua.	56
5.5.3 Hizkuntza-tratamendua.	57
1. Ama hizkuntza(k) eta bigarren hizkuntza	58
a. Hizkuntzak eta eskola.	58
b. Ama hizkuntza ez den beste batez hezi daiteke umea?	59
c. Komunikazioa eta hizkuntzaren hastapenak.	60
d. Nagusiaren jokabidea eta bere zentzua.	61
e. Formatoak.	62
f. Diskurtsoetan parte hartuz hitz egiten eta pentsatzen ikasten da, aldi berean.	63
2. Ama Hizkuntza eta haurreskolakoa.	65
a. Etxetik haurreskolara bidea.	65
b. Orduan, nola jokatu behar da?	66
c. Keinua eta hitza lotuta.	66
d. Umearen gaiari jarraitu eta zabaltu. Aditasuna.	67
e. Hizkuntzaren alde ludiko-poetikoa garatu.	68
f. Errutinak.	68
• Garbiketaren momentuan.	68
• Jatorduek.	68
• Jolasa.	68
g. Hitz egiten taldean.	69
• Eguneroko gertakizunen kontakizunak.	69
• Gertatuko dena edo egingo dena aurreratzean edo planifikatzean.	70
• Ipuina.	70
h. Hezitzailearen hizkuntza.	71



Ikur hau daramaten lekuak propio gorde dira haurreskola bakoitzak gaiari buruzko ekarpenak egin ditzan, gaian sakondu dezan edo hura egoki irizten duen moduan berriatzi dezan.



AURKEZPENA

1

Haurreskolak Partzuergoaren Oinarrizko Hezkuntza Proiektua duzu hau. Haurreskola bakoitzak hartu eta egokitu beharko ditu, hala ere, bere izaera propioa finkatzeko erabakiak eta jarduerak.

Erakundearen eraketa-agirian adierazten denez, Haurreskolak Partzuergoaren helburuek bi xede nagusi dituzte: batetik, haurreskoletan izena ematen duten haurrei hezkuntza-arreta osoa ematea, eta, bestetik, familiei gizarte-arreta eskaintzea, batik bat, familia-bizitza eta lana bateratzeari dagokionez.

Hezkuntza-alorrari dagokionez, Haurreskolak Partzuergoak haurren garapen osoa sustatu nahi du, familiekin batera. Helburu hori haurren prestakuntzaren eta sozializazioaren bidez lortu nahi du; betiere, aintzat hartuta adin txikikoen eskubideen errespetua, haien ongizate fisikoa eta psikikoa, eta haien ahalmen afektiboen, zentzumenezkoen eta motorren, kognitiboen, harremanezkoen eta sozialen garapena.

Gizarte-alorrari dagokionez, asistentzia-zerbitzu bat eman nahi zaie familiei, hiru urtetik bateratzen lagundu nahi dugu.

Haurreskolek beren hezkuntza-proiektuan jasoko dituzte helburu horiek, hezkuntza-erabaki guztiak eta horien metodologia-zehaztapenak finkatuz: aniztasunaren errespetua; hezkuntza-premia berezien tratamendua; materialen aukeraketa eta banaketa; espazioen, denboren eta taldeen banaketa; eta familiekiko eta beste hezkuntza-eragile batzuekiko harremana, besteak beste, egutegia, matrikulazioa eta bestelako alderdiak zehaztuz.

2

ZER DA HAUR HEZKUNTZA?

Egungo hezkuntza-sistemaren lehen atala da, zerotik sei urte arteko haurrei zuzendua eta ez-derrigorrezkoa. Guk zerotik bi urte arteko adin-tarteari erreparatuko diogu. Haren helburu nagusia garapen osoa sustatzea da, ahalmen guztien (fisikoak, afektiboak, intelektualak eta sozialak) garapenari erreparatuta.

Haurren bizitzako funtsezko aldia da. Bizitzaren lehen une horietan osatzen dira neurona-egiturak, indibidualizazio- eta sozializazio-prozesuak egituratzen dira, eta hazkuntza fisikoa eta garapen psikomotorra, pertzepziozkoa eta intelektuala gertatzen dira. Horiei guztiei esker, inguruarekin eta pertsonekin dituzten harremanak garatzen dituzte haurrek. Halaber, hizkuntza eskuratzen eta garatzen hasteko garaia da. Horrenbestez, haurrek zenbait lorpen erdietsiko dituzte, eta horien gainean osatuko den egituran egokituko dituzte ondorengo bizipenak, nortasuna osatuko dute eta etorkizuneko elkarrekintza sozialen eta intelektualen oinarriak finkatuko dituzte.

Haur Hezkuntzak bereziki zainduko du haurrek, pixkanaka, norbanakotzat identifika ditzaten beren buruak, eta beren inguruan jarduteko behar dituzten tresnak eskura ditzaten.

Aldi horretan, hauek izango dira alderdi garrantzitsuenak: harreman pertsonalak, autoestimua, gaitasun kognitiboak eta hizkuntza-gaitasunak, gizarteratze-gaitasunak, eta gaitasun motorrak.

Abiapuntu horren jarraipena ziurtatzeko, ikastetxeekiko koordinazioa landuko da, lotura-mekanismoak bermatzeko. Horiek horrela, trantsizioek jarraitasun-elementuak eta beharrezkoak diren aldaketa- eta ezberdintze-elementuak izango dituzte.

3

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAREN HELBURUAK

Hauek dira 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzaren helburuak:

1. Familiekin batera eta adin txikikoen eskubideen errespetua aintzat hartuta haurren eremu zentzumenezko, motor, kognitibo, harremanezko eta sozialen garapen osoa eta orekatua erraztea.
2. Haurren ongizate psikofisikoa bermatzea, norberaren irudi positibo eta orekatu baten eraikuntza eta autonomia pertsonaleko eskuratze mailakatua erreztuz.
3. Ezberdintasunak prebenitzeko eta konpentsatzeko hezkuntza sustatzea, eta, bereziki, gizarte-arloan edo modu pertsonalean kaltetuen dauden pertsonen arreta ematea, ekitatearen bila.
4. Hezkuntza-ekintzaren hastapenetik bertatik erraztea eta bultzatzea Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza bermatzeko baldintzak.
5. Hiru urte baino gutxiagoko seme-alabak zaintzeko asistentzia-zerbitzua ematea familiei. Zerbitzu hori seme-alabak dituzten familiei familia-bizitza eta lana bateratzen laguntzeko planaren barruan sartzen da.
6. Landa-eremuko herriei (Europako Batzordearen 2000ko martxoaren 14ko erabakian zehaztutakoak) kalitatezko hezkuntza- eta asistentzia-zerbitzua eskuratzeko aukera ematea.

4

HAUR HEZKUNTZAREN GAITASUNAK

Gaitasun bezala ulertuko da, haur hezkuntzaren bidez haurrak jasotzen dituen ezagutzen, gaitasunen, trebetasunen eta jarreraren konbinazio integratua. Haur Hezkuntzaren gaitasunak, hezkuntza orokorraren gaitasunetatik abiatuta definitzen dira, zeintzuk hezkuntzaren etapa guztietan komunak diren:

1. Arduraz bizitzen ikastea
2. Ikasten eta pentsatzen ikastea.
3. Komunikatzen ikastea.
4. Elkarrekin bizitzen ikastea.
5. Pertsona gisa garatzen ikastea.
6. Egiten eta ekiten ikastea

Oinarrizko gaitasunak

Haur Hezkuntzarako ezarritako oinarrizko gaitasunak, Haur Hezkuntzako ikaslegoaren gaitasunen bereganatzea planteatzeko hartuko dira kontutan ikuspuntu integratzaile eta praktiko batetik. Gaitasun horiek honakoak dira:

1. Zientzia, teknologia eta osasun alorreko kulturaren gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko gaitasuna.
3. Matematikako gaitasuna.
4. Komunikazio linguistikoaren gaitasuna.
5. Informazioaren trataeraren gaitasuna eta gaitasun digitala.
6. Gizarte eta hiritartasun gaitasuna.
7. Gizarte kulturaren eta kultura artistikoaren gaitasuna.
8. Autonomia ekimen pertsonalerako gaitasuna.

5

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Konpromisodun lana lortzeko helburuz hartutako erabaki multzoa jasotzen du Haurreskolak Partzuergoaren Hezkuntza Proiektua agiriak. Lan hori parte-hartzean, hausnarketan, kritikan eta adostasunean oinarrituko da.

Hezitzaileek, agiri honen bidez, laguntza izango dute beren haurreskolaren hezkuntza-planteamenduei buruzko erabaki zehatzak eta funtsezkoak hartzeko, planteamendu horiek erabiliko baititugu hezkuntza-aldi horri dagozkion berezko gaitasunak eskuratzeko eta horien garapena errazteko eta bultzatzeko. Horretarako, adin horretako haurren garapen-mailari eta berezko premiei egokitutako testuinguruak antolatuko dira, guztiak kontuan hartuta eta bakoitza modu independentean jorratu gabe; nahiz eta, eredu aurkezteko, haren edukia zati daitekeen, erabilera profesionala eragingarria izan dadin. Horiek horrela, ezingo da hezkuntza-jardueren eta asistentzia-jardueren arteko dikotomiarik ezarri; izan ere, bi ardatz horiek elkarreaginean jarduten dute haurren garapen osoan, eta biak dira hezkuntzako esku-hartzearen xede.

Haur Hezkuntzako derrigorrezko hezkuntza-aldia ez den arren, Oinarrizko Hezkuntzarako egiten diren planteamenduekin, bat egiten dugu, "hauek dira hezkuntzaren lau zutabeak, bizitzan zehar: ezagutzen jakitea, egiten ikastea, gainerako pertsonekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea".

Adin horretan egindako hezkuntzako esku-hartzei dagokie oinarriak finkatzea asmo horiek haurren eskolatzeko-aldi guztian bete daitezen. Horietatik eratortzen dira aurreko atalean aipatutako 8 oinarrizko gaitasunak, zeintzuk Oinarrizko Heziketaren helburuak lortzeko erreferentziazko puntu izan beharko diren.

Proiektu honek ez du hezkuntza-interbentzioa mugatzeko eta hura errealitatetik urruntzeko asmorik; aitzitik, adin horretako hurrekin lan egiten duten pertsonek profesionalizatzea du helburu. Haurren prestakuntza osoa erdietsi nahi duten haur-eskolek profesional trebatuak izan behar dituzte, beren erabakiak eta ekintza praktikoak planteamendu teorikoetan oinarritu ditzaketenak.

Hemen aurkezten dugu Haurreskolak Partzuergoaren Hezkuntza Proiektua, adierazitako guztia betetzen laguntzeko xedez. Xede hori lortzeko, haurreskolek hartu beharreko erabaki orokorrak zehazten eta oinarritzen ditu.



Hauek izango dira erabaki beharrekoak:

- Helburu zehatzak.
- Helburu zehatz horiek lortzeko edukiak.
- Funtsezko hiru alderdiok:
 - Aniztasunaren errespetua Haurreskolak Partzuergoan.
 - Hezkuntza-premia berezien tratamendua Haurreskolak Partzuergoan.
 - Hizkuntza-tratamendua Haurreskolak Partzuergoan.
- Hezkuntza-ildoak, "Hezkuntzako printzipio orokorrak eta erabaki metodologikoak hartzea Haurreskolak Partzuergoan. Haurreskolak Partzuergoaren helburu orokorrak eta lanerako edukiak" liburuan (20. or.) jasotako metodologia aldagai hauetan zehaztutakoa. Halaber, hauek finkatu beharko dira:

- 1. Hezkuntza proposamenen antolaketa.** Hezkuntza printzipioak beteko dituzten proposamenak diseinatzea.
- 2. Espazioen, denboren eta taldeen antolaketa.** Hezkuntza Printzipioak lortzeko, aurrera egitearekin batera, beharrezkoa da espazioak diseinatzea, denborak banatzea eta taldeak osatzea, pertsona bakoitzaren garapen erritmo indibiduala errespetatuz.
- 3. Materialen aukeraketa eta antolaketa.** Zenbait material erabiliko dira haurreskola bakoitzean zehaztutako helburuak lortzeko eta proposatutako edukiak lantzeko. Material horiek, behar bezala banatuta, haurren garapen-prozesua bultzatuko dute.
- 4. Pertsonal baliabideen antolaketa.** Taldeak, ardurak, karguak eta gainerako alderdiak esleitzea.
- 5. Behaketaren eta informazioaren antolaketa.** Informazioa nola jaso, eta zer eta nola behatu. Zer baliabide erabiliko diren behaketari eta informazioari dagozkionak jasotzeko eta zabaltzeko.
- 6. Hezkuntza-elkarreraginen antolaketa.** Haurren arteko eta hurrekin egindako elkarrekintzak funtsezkoak dira haien garapenerako; beraz, jarduera-ildo koherente bat finkatu behar da hurrekin elkarreragiten duten pertsona helduen artean (hezitzailea-hezitzailea, haurreskola-familiak, hezitzailea-familia, haurreskola-eragileak eta kanpo-zerbitzuak, etab.). Esaterako: gatazkarik bada, nola esku hartu; arauak nola aplikatu; noiz arte utzi zerbait egiten eta noiz mugatu; etab.

Hartutako erabakiak zilegitzeko eta oinarritzeko, Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-printzipio orokor hauetan ("Hezkuntzako printzipio orokorrak eta erabaki metodologikoak hartzea Haurreskolak Partzuergoan. Haurreskolak Partzuergoaren helburu orokorrak eta lanerako edukiak" liburua, 16.-17. or.) jasotako hezkuntza-teoriaz baliatuko gara, zenbait erabaki onetsi eta beste batzuk baztertu egiten baititu:

- 1.** Garapena prozesu pertsonala da, baina inguruneak baldintzatzen du.
- 2.** Haur guztiek ez dituzte ikasketarako oinarri berdinak, eta ez dituzte, hasieratik, ikasteko aukera berdinak, ezta ikasteko erritmo berdina ere. Guztiok gara ezberdinak.
- 3.** Garapen intelektualak bizitzako esperientziak eta horien kalitate emozionala du oinarrian, eta pertsonaren osotasunari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.
- 4.** Gaitasun bakoitzak garapen-maila ezberdina duenez, guztiok modu ezberdinean ikasten dugu, eta nola eta noiz ikasten dugun jakiteko, ez zaio erreparatu behar soilik gaitasun intelektualari, garapen afektiboak eta garapen sozialak ere eragina baitute prozesu horretan. Izan ere, lan horretan, beharrezkoa da pertsonen hiru alderdi horien arteko erlazioa.

5. Gainera, ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten. Ez da gauza bera nork bere burua maitatzen eta onartzen ikastea, edo beste pertsona batzuekin hitz egiten eta harremanetan jartzen ikastea.
6. Hazteko eta ikasteko, beharrezkoa da ingurune orokorra egonkorra izatea, baita onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa izatea ere.
7. Ildo horretatik, erreferentziazko pertsona heldua garrantzi handikoa da adin horietako haurrentzat, beren garapena bultzatzeko eta errazteko. Erreferentziazko heldu horren eginkizun nagusia behatzea eta entzutea da, bitartekotza-lanak egiteko haurraren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean.
8. Adin horretako haurrek ikas dezaten, hezkuntza-proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute. Halaber, erronkek garrantzi handia dute, hazteko motibazioa bultzatzen baitute.
9. Arlo pertsonalean eta intelektualean hazteko, kanpo-jarduera handia (jolasa, mugimendua) behar da, baina baita barne-jarduera handia ere. Beraz, hezkuntza-proposamenek ikasteko egokiak izan behar dute, eta gozatzeko eta saiatzeko aukera eman behar diete hurrei, giro ludiko eta alaian, estimuluak doiak direla.
10. Horrenbestez, hezkuntza-egoeren plangintza egiteko, aintzat hartu behar da ikertzeko premia. Hezkuntza-egoera horiek:
 - Arreta erakarri behar dute, interesa pizteko eta interes horri eusteko.
 - Dakitenaren eta ikas dezaketenaren arteko kontrastea egiteko aukera eman behar dute.
 - Dakitena finkatzen eta ezagutza horiek beste egoera batzuetan aplikatzen lagundu behar dute.
11. Familiaren eta haurreskolaren arteko koherentzia funtsezkoa da, hazteak eta ikasteak dakarren desoreka emozionalari arrakastaz aurre egiteko behar den oreka emozionala bermatzeko; beraz, familiaren eta haurreskolaren arteko elkarlana bermatu behar da, bai eta hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona heldu guztien artekoa ere.

Hamaika hezkuntza-printzipio horien bidez, hainbat arlo zientifikoren ekarpen teoriko nagusiak jaso nahi ditugu.

Haurrek “ni” osasuntsua gara dezaten, beharrezkoa da heziketak eta esku-hartzeek haurren kulturaren berezitasunak ulertzea; hau da, ikasteko eta munduari aurre egiteko modu hori aintzat hartzea.

0-3 urte bitarteko haurren hezkuntza-aldiak ezaugarri propioak ditu, eta ez da ondorengo hezkuntza-aldietako prestatze-aldizat jo behar.

Horrenbestez, gure hezkuntza-proiektuko planteamenduaren helburua haurreskoletako haurren gaitasunen aberastasuna onartzea da, eta, horrekin batera, hezkuntzako esku-hartzearen kalitatea eta teoriaren eta praktikaren arteko koherentzia balioestea, gizartearen eskariei eta haurren eskubideei duintasunez erantzuteko.

Ildo horretatik, bi sarrerako taula honek erabaki orokorrak hartzen lagunduko digu Metodologia Aldagai bakoitzean; betiere, haurreskolek bere gain hartutako Hezkuntza Printzipio Orokorrekin bat etorritik:

HEZKUNTZA PRINTZPIOA	1. M.A	2. M.A	3. M.A	4. M.A	5. M.A	6. M.A
0. Garapena prozesu pertsonala da.						
1. Pertsona guztiak ezberdinak gara.						
2. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.						
3. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.						
4. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.						
5. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.						
6. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.						
7. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.						
8. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).						
9. Haurrek mundua ikertzeko premia dutela aitortu eta errespetatu behar da.						
10. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.						

5.1

HAURRESKOLEN NORTASUN IKURRAK

Haurreskolek nortasun-ikur propioak izatea onartzen eta proposatzen du Haurreskolak Partzuergoak. Nortasun-ikur horiek ezagutaraziko dituzte haurreskolak, eta ikur horiek, oinarrian, balio hauek izango dituzte:

- a.** Pluralista eta librea, aniztasunari irekia eta errespetuz eta tolerantziaz hartzen dituen diferentzia etnikoak, kulturalak, erlijiozkoak, sozialak, fisikoak, zentzumenezkoak eta motrizitatekoak.
- b.** Integratzailea eta konpentsatzailea, pertsonen arteko berdintasunari eta pertsonen errealizazio-aukerei begira dagoena, edozein direla ere horien baldintza pertsonal, sozial eta sexualak, gaitasunak, arraza edo gizarte-jatorria, eta, betiere, gizarte-estereotipoak ezabatzen saiatuko dena.
- c.** Laikoa, haurreskolak ez-konfesionalak izatearen alde gaude, pertsona guztien sinismenak errespetatzen baititugu.
- d.** Kritikoa, hiritar parte-hartzaile eta arduratsuak lortzeko hezkuntza emango duena, elkartasunean, tolerantzian eta aukera-berdintasunean oinarritutakoa; balio demokratikoetan hezteko, alegia.
- e.** Euskalduna. Haurreskolak Partzuergoak euskara erabili nahi du ikasteko eta harreman guztietarako, eta, horretarako, beharrezkoak diren bitartekoak eta baliabideak moldatuko ditu.
- f.** Demokratikoa, esku-hartze pedagogikoko eta funtzionamenduko bideak ezartzen dituen, hezkuntza-komunitateko kide guztientzat.

5.1.1 Testuinguruaren azterketa

Inguruneak, zalantzarik gabe, eragina izango du gure hezkuntza-lanean eta hura baldintzatuko du. Errealitate horiek hartu beharko ditugu abiapuntutzat, eta, ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu alderdi hauei buruz hausnartzea:

a) Ingurune fisikoa

- Herria (kokapena, eskualdearen historia laburra, ezaugarriak, berezitasunak, etab.)
- Udal-zerbitzuak (sozialak, hezkuntzakoak, osasun-zerbitzuak, aisialdikoak, kulturalak, kirolekoak eta abarrekoak)
- Haurreskolaren ezaugarriak (haurreskola mota, kokapena, urteak, etab.)
- Espazioak (barne-espazioak eta kanpo-espazioak).



b) Ingurune soziala

- Biztanleria (biztanle kopurua, lan-esparru nagusiak, hala nola, industria, nekazaritza, zerbitzuak...)
- Seme-alabak gure haurreskolara dakartzaten familiak (ezaugarri nagusiak, etxeko hizkuntza, bekadun kopurua, maila sozio-ekonomikoa eta kulturala, etab.)
- Ikasleak (ikasle kopurua, adina, ezaugarriak, hezkuntza-premia bereziak...)
- Pertsonal baliabideak (hezitzaileak eta, baleude, irakaskuntzakoak ez diren langileak.)
- Haurreskolak ematen dituen zerbitzuak (ordutegia, egutegia, jangela...).



5.2

HELBURUAK

“Helburuak, edukiak, hezkuntzako printzipioak eta erabaki metodologikoak hartzea Haurreskolak Partzuergoan” liburuan (20. or) jasotakoak dira, eta horiek zuzenduko dituzte bai errealitate horretara egin beharreko egokitzapenak (egin behar badira), bai haurreskola bakoitzak bere hezkuntza-prozesua diseinatzeko egin behar duen gela-programazioa.

Haurrek nortasun osasuntsua gara dezaten bultzatzea eta erraztea izango da helburu horien xedea.



5.3

EDUKIAK

Haurreskolak Partzuergoak adierazia du, zati batean bederen, zein izan behar duten etapa honetan landu beharreko edukien aukeraketa eta banaketa, eta aurrez adierazitako liburuan dago jasota. Hala ere, hezitzaileek garrantzi handiko lana egin behar dute horiek ezagutzeko, konpartitzeko, aukeratzeko eta antolatzeke, baita haurreskola bakoitzaren inguruneari moldatzeko ere.



5.4

HAURRESKOLEN HEZKUNTZA ILDOA.

5.4.1 Oinarri teorikoa

“Helburuak, edukiak eta erabaki metodologikoak hartzea Haurreskolak Partzuergoan” liburuan jasotakoari jarraituz, Partzuergoko haurreskoletan egunero hartzen diren erabakiak ez dira modu arbitrarioan hartzen; aitzitik, erabaki horien oinarria azterlanak eta zenbait alor zientifikoren azken ikerketek osatutako teoria da, hezkuntza-printzipio jakin batzuetan bildutakoa. Hezkuntza-printzipio horiek osatutako esparru teorikoak gidatzen, hautatzen eta justifikatzen ditu eguneroko erabakiak haurreskoletan.

Alde batetik, psikologiak eta medikuntzako eta osasun-zientzietako zenbait alorrek egindako ikerketak ditugu, adin horietako haurren garapen fisiko, kognitibo, sozial eta afektiboari buruzko ezagutza sakontzen dutenak; eta, bestetik, garapen- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko ikerketak. Azken ikerketa horietatik ondorioztatzen dira erabili beharreko teknikak eta esku-hartze hobeak egiteko bide ematen duten ekintzak; betiere, ikasteko modurik egokiena errespetatuz.



5.4.2 Eguneroko lana Haurreskolak Partzuergoan

Jarduera profesional ugari eta askotarikoak egiten ditugu; ondorioz, ezinezkoa da horiei banan-banan ekitea. Beraz, jarduerak zenbait metodologia-aldagaitan bildu ditugu. Hona hemen aldagaiok:


1. Hezkuntza proposamenen antolaketa.
2. Espazioen, denboren eta taldeen antolaketa.
3. Materialen antolaketa eta aukeraketa.
4. Pertsonal baliabideen antolaketa
5. Behaketaren eta informazioaren antolaketa.
6. Hezkuntza-elkarreraginen antolaketa.

Haurreskolako eguneroko lana modu profesionalean programatzeko, beharrezkoa da hezkuntza-printzipioak aintzat hartzea, esparru teorikotik justifikatzen baitituzte sei metodologia-aldagaitan jasotako erabaki praktikoak. Beraz, metodologia-aldagai bakoitza garatu, hezkuntza-printzipio adierazgarrienekin lotu, alderdi orokorrak geure egin eta gure haurreskolari dagozkion erabaki zehatzak hartu behar ditugu.

5.4.3 Nola zehaztuko ditugu printzipio teoriko horiek lanean?: metodologia-aldagai bakoitzean erabakiak hartzea; Teoriaren eta praktikaren arteko lotura

Agirian zehar adierazi dugunez, Hezkuntza Printzipio Orokorretan jasotako teoriak baldintzatzen du metodologia-aldagaietan hartu beharreko erabaki bakoitza; hala ere, badaude zenbait printzipio zuzenean eta argiago zehazten dutenak horietan hartu beharreko erabaki orokorrak.

Horiek horrela, erabakiak hartzea errazagoa izan dadin, bi sarrerako taula bat jarri dugu aldagai bakoitzaren azalpen-sarreran. Taula horietan, metodologia-aldagai bakoitzeko edukiak lotzen ditugu aldagai horien edukiari buruz hartu beharreko erabakiak hobekien justifikatzen dituzten printzipioekin.



5.4.3

1. ALDAGAI

JARDUEREN ANTOLAKETA: JARDUERETATIK HEZKUNTZA- PROPOSAMENETARA

Hezkuntza proposamen guztiek dute zentzua, baina pentsatu egin behar da zein den.

Jarduera bat proposatuz gero, zenbait alderdiri erreparatu behar diegu: zertarako egingo den, noiz egingo den, zergatik egingo den, nola egingo den, etab.

Teoria eta praktika lotzeko ahalegina egitea eskatzen du horrek.

Azken finean, haxe jakin behar dugu: zer teoria dagoen egiten ditugun edo garatzen laguntzen ditugun jardueren oinarrian.

Horrenbestez, Haurreskolak Partzuergoko jarduera antolatzeko, aintzat hartu behar dugu lehen hamar hezkuntza-printzipio orokorrek adierazitakoa. Zergatik hamar horiek? Zergatik hainbeste? Jarduerak testuinguru, espazio eta denbora jakin batean diseinatzen direlako, material jakin batzuek lagunduta, heldu batek edo batzuek esku hartzen dutela, haur-talde jakin batentzat, etab. Hau da, aldagaiak hezkuntza-jarduera jakin bat diseinatzean mobilizatzen dira, eta aldagai bakoitza hezkuntza-printzipio bat baino gehiagoren arabera justifikatzen da; hortaz, aldagai gehienak harekin lotuta badaude, printzipio guztiek edo ia guztiek adieraziko dute jardueraren diseinua zuzena dela, bat egingo baitu hura justifikatzen duen teoriarekin.



Beraz, aldagai honi dagokionez, hauxe litzateke bere edukia (praktika) zehazten duten hezkuntza-printzipioekiko (teoria) lotura:

HEZKUNTZA PRINTZIBIOA	JARDUEREN ANTOLAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

Haurreskolak Partzuergoko jarduera diseinatzeko, hau bete eta errespetatu beharko da:

1. Nork bere garapen-erritmoa du. Hau da, geure kabuz ikasten dugu eta gainerako pertsonekin (familiekin, hezitzaileekin, haurrekin, beste pertsona heldu batzuekin) egindako elkarreraginen bidez ikasten dugu; alegia, inguruan ditugun pertsonetikiko eta gauzekiko elkarreraginen bidez. Funtsezkoa da elkarreragin horiek kalitatezkoak izatea.
2. Ikasteko erritmo ezberdinak ditugu, lehentasun ezberdinak, eta ezberdinak gara izaten ikasteko, nork bere burua onartzeko eta gainerako pertsonak onartzeko gaitasunei dagokienez, baita gainerako pertsonekin ongi bizitzeko eta bizitzako gauzeekin (norberak pentsatzen duena, gertatzen dena eta nola eta zergatik gertatzen den) ikasten ikasteko gaitasunei dagokienez ere. Hori bera gertatzen da ezagutzeko eta jakiteko tresna kontzeptualak eskuratzeko gaitasunari dagokionez, horiek handitzen baitute ezagutza-sareak sortzeko gaitasun kognitiboa, eta horiek bultzatzen baikaituzte ikastera eta nola ikasten den jakitera.
3. Ikasteko, afektu orekatua izan behar dugu, horrek emango baitigu bidea beste pertsona batzuekin eta gauzeekin harremana izateko, eta, ondorioz, geure gain hartzeko ikertzearen eta ikastearen arriskua, dakiguna zalantzan jarrita, gauza berriak ikasteko. Horren bidez, ezagutza-eskemak alda ditzakegu, ikasitako eduki berriak geureganatuz.
4. Kontzeptuak ez dira eskuratzen eskuratzeko-prozesu horren inguruko afektibitatearen eta harremanen kalitatea alde batera utzita, eta, noski, norberaren garapen emozionalak ere eragina du prozesu horretan.
5. Gauza desberdinak dira izaten ikastea, harremanak izaten eta munduan leku bat bilatzen ikastea, edo munduaren ikuskera osatzeko erabiltzen ditugun hizkuntzak menderatzen ikastea. Pertsonen hiru alderdi horiek harmoniaz eta orekaz garatu behar ditugu, etorkizuneko gizartearen eraikuntzaren eta prestakuntza kritikoaren alde esku hartzeko gai izango bagara.
6. Ikasteak berekin dakarren desoreka kognitiboaren arriskua geure gain hartzeko, beharrezkoa da norberak lasaitasun afektiboa izatea eta gizarte-ingurunea segurua izatea: onartzen eta behar bezala balioesten gaituztela sentitu behar dugu.
7. Hezkuntza-prozesu horretan parte hartzen duten pertsona helduen egiteko nagusia haurraren garapen afektibo orekatua erraztea da, eta, horren harian, izaera norberaren berezitasunera doitzea, beste pertsona batzuekin eta gauzeekin izango diren elkarreraginei ikertzeko irrikaz eta norbere burua, gainerako pertsonak eta gauzak errespetatuz ekiteko. Behatze- eta entzute-prozesua funtsezkoa da banakotasuna, diferentziak, gaitasunak eta gainerako ezaugarriak onartzeko.
8. Haurren ekimenak eta autonomia garatzeko, errepikapenari bide emango dioten ereduetatik abiatu behar gara, eta konfiantzaz hartu egiten dutena eta lor dezaketen arrakasta. Adin horretan, beharrezkoa da eguneroko ohiturei jarraitzea, lasaitasuna bermatzeko eta egin beharrezkoa aurreratzeko, baina, horrekin batera, egunak ere sorpresak ekarri behar ditu, helburua ez baita jarduerak zentzurik gabe errepikatzea eta haurrak aspertzea.

Gertatzen denari erreparatuta, posible da –eta beharrezkoa– hezkuntza proposamenak aldatzea, mundua ezagutzeak eta ikertzeak pentsatzeko eta eragiteko hainbat jarduera egitea eskatzen baitu. Jarduerak egiteko motibazioak ez badugu, ez dugu ezer ikasiko. Egitekoa errazegia edo zailagia bazaigu, interesa galduko dugu, eta ez diogu eutsiko gogoz ikasteak eskatzen duen ahaleginari. Gure esku dagoen ahalegina egitea eskatzen badu egoerak, interesari eutsiko diogu eta aurrera egiteko prest izango gara.

9. Ikastea ez da kanpo-jarduera soilik, barne-jarduera ere bada. Giroa bizigarria, alaia eta estimulu doitukoa bada eta emozioz hartzen bagaitu, errazago egingo diogu aurre ikasteak dakarren desoreka kognitiboari; hau da, dakiguna zalantzan jartzeak, informazio berriari erreparatzeak eta informazio hori ikertzeak eta horri buruz pentsatzeak dakarren desoreka kognitiboari aurre egitea.
10. Zerbait berria geureganatu ondoren, beharrezkoa da hura finkatzea, eta ondorengo hezkuntza-proposamenetan jasotzea, gehiago ikasi ahal izateko.

Pintzipio hauek praktikan jartzeak, Haurreskoletan egindako lanak, Haur Hezkuntzaren ezaugarri den hezkuntza integralaren helburua izatea dakar

a. Haurreskolak Partzuergoko Hezkuntza Proposamenak.

EAEko Haur Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum Diseinuak 39. orrialdean adierazten duenez, adin horietako haurren ezaugarriek haxe eskatzen dute: ikasketa ekintzan, jolasean, esku-erabileran eta inguruaren ikertze-jarduera zuzenetan oinarritzea.

Eskuak erabiliz, jolasaren bidez eta inguruko elementu fisikoak eta sozialak ikertuz hasten dira haurrak beren burua eta beren inguruko errealitatea ezagutzen. Pertsonekin eta gauzeekin elkarerraginean egindako lehen esperientzia horien bidez deskubritzen dituzte horien ezaugarriak eta horien arteko harremanak, eta, ondoren, elementu eta harreman horiek irudikatzen dituzte buruan.

Haurreskolak Partzuergoaren hezkuntza-proposamenen ardatza eguneroko egitekoak eta jolasa izango dira, horiek baitira haurren bizitza, bizitzeko eta hasteko moduaosatzen dutenak, baita, ondorioz, ikasteko modua ereosatzen dutenak.

a.1 Eguneroko egitekoak.

Hezitzaileek zaintza-lanak egiten dihardute lanaldiaren zati handi batean (besteak beste, jaten ematen, pixoihalak aldatzen eta atsedendeborak antolatzen); hau da, egunerokoak eta ohikoak dituzten lanak egiten. Une horiek oso baliagarriak izan daitezke haurrek ikas dezaten. Hezitzaileek, hortaz oharturik, une horiek aprobetxatzen dituzte eskatutako helburu asko betetzeko, zaintza horiek, haurren behar biologikoei erantzuteaz gain, haurren garapena bermatzen eta sustatzen baitute:

- Beren buruaz, beren sentimenduen eta gorputzaren aukerez jabetzen laguntzen die haurrei.
- Etengabe pizten eta elikatzen dute zentzumenen mundua.
- Garrantzitsuak dira haurrek hizkuntza eskuratu eta gara dezaten, haientzat oso esanguratsua den testuinguruan egiten baitira.
- Erabakigarriak dira harreman eta lotura emozionalak sortzeko (begiradak, gorputzen kontaktua, keinuak, eskaerak, hitzez emandako erantzunak, maite-maite egitea...)

Hauek izan daitezke eguneroko eginkizun ohikoenak edo esanguratsuenak:

- Sarrerak eta irteerak.
- Korroa (adinera egokitzen bada).
- Higienea eta zainketa pertsonala.
- Atsedena.
- Jatorduak.

1. ALDAGAIA

Sarrerak eta irteerak

• Sarrera:

Funtsezkoa da haurreskolara sartzeko unea eta une horretan egiten dena zaintzea, adin horietako haurrentzat etxetik irtetea, eta, batik bat, maite dituzten pertsonengandik urruntzea larrigarri gerta baitaiteke.

Familiarekin batera jardutea behar-beharrezkoa da haurrak onartuak senti daitezen, bai familiaren aldetik, bai hezitzaileen aldetik, bai gainerako haurren aldetik. Haurrak hizketan lasaian ikusten baditu senideak eta hezitzailea, leku seguruan dagoela pentsatuko du.

Egunero, haurreskolara sartzean, gozo-gozo hartuko ditugu haurrak, eta haurren egoerari buruz hitz egingo dugu familiarekin. Beharrezkotzat jotzen badugu, haurren objektu pertsonalak ekartzeko eskatuko dugu, etxearen/familiaren ordezkariak egin eta urruntze-une hori gaingiditzen lagun diezaieten. Haurreskolara sartzeko moduak eragina izan dezake haurrak egunaren zati handi batean izan dezakeen jarreran.

Haurreskolako kideekin elkartzen diren unea garrantzitsua da haurren arteko elkarreragina eta adiskidetasuna garatzen hasteko; beraz, harreman horiek sortzen lagunduko diegu. Une horretan ez dugu talde handiko proposamenik egingo, hezitzaileak haur bakoitza modu indibidualean tratatu dezan, taldean barneratzen doazen moduan. Horrela, exigentzia handirik gabe, jarduera eta harreman-motak aukeratzen utziko diegu.



• Irteera:

Haurreskolan eguna eman ondoren, haurrak senideekin berrelkartzen dira irteeran. Garrantzitsua da une hori behar bezala antolatzea, guztiontzat une atsegina izan dadin.

Irteerako orduan, helduen joan-etorriarekin batera, emozioak eta sentimenduak biziagotu egiten dira, eta haurrak urduri jar daitezke, espero duten pertsona edo pertsonak azaldu arte. Hortaz, aintzat hartu beharko dugu egoera hori, eta, posible bada, jarduera- eta harreman-motak aukeratzen utziko diegu, senideak iritsi arte.

Haurreskolara sartzean egin dugun moduan, espazioen eta pertsonen aldaketa errazten saiatuko gara helduok. Horretarako, prestaketa-jarduerak egingo ditugu (agurreko kanta abestu, eguneroko lanak egin, etab.), gertatuko dena iragarri eta haurrek gertaerok aurreikus ditzaten laguntzeko.

Senideak, berriz, irrikaz egon daitezke haurrek eguna nola igaro duten jakiteko, eta, ondorioz, normala izango da informazioa trukatzeko haurrarekin edo hezitzailearekin, bai hitzez, bai idatzizko oharren bidez.



1. ALDAGAIA

Korroa

Talde osoa batera egoteko unea da. Hezitzailearekiko harreman indibiduala gainditzen laguntzen die, eta talde-sentimendua bereganatzen. Korroa, espazio eta une egokia da elkarrekin komunikatzeko, behatzeko, egingo duguna planifikatzeko eta egindakoari buruz hitz egiteko.

Hona hemen korroan egin daitezkeen jarduera batzuk:

- Eskutik helduko gara, musu emango diogu elkarri...
- Abestien, jolasen eta keinuen bidez taldeko kideen izenak ikasiko ditugu.
- Non nago? Nola nago? moduko jolasak.
- Galdera-jolasak: zer da? Nolakoa da? Zer materialetakoa da? Zertarako balio du?
- Ipuinak, haurren atentzioa erakartzeaz gain, beren arreta-ahalmena handituko eta beren hizkuntza aberastuko duten istorio txikiak.



Bazkaria

Bazkariak, haurren behar biologikoa asetzeaz gain, beren erregistroak hezteko eta handitzeko aukera ematen digu, janarien zaporeei, egiturei, eta abarrei dagokienez. Une egokia dugu autonomia lantzeko, oztopoak gainditzeko plazera gozatzeko eta helduekiko independentzia eskuratzen joateko. Horrez gain, ekintza sozial eta komunikazio-ekintza garrantzitsua da, aurrez ezarritako arauak bete behar dituenak.

Bazkaltzeko ordua lagungarria da:

- Hezitzailearekiko harremana sendotzeko lehen hiletan.
- Ikaste-prozesu bat eta autonomia eskuratzeko prozesu bat garatzeko, bai nutrizioaren ikuspegitik, bai ikuspegi sozial eta afektibotik.
- Bazkaltzeko arauen bidez kultura-alorreko ikasketak barneratzeko eta jateko ohitura osasuntsuak hartzeko.
- Janaria plazer-iturri izan dadin lortzeko eta zapore-, egitura- eta usain-erregistro zabala eskuratzeko.
- Jateko ordua gertuko gizarte-taldeekiko harreman afektiboa lantzeko unetzat hartzeko eta ordu horretan portaera-arau egokiak bete behar direla jabetzeko.



1. ALDAGAIA

Aldatzeko eta garbitzeko ordua

Pixoihala aldatzeko unea oso egokia da haurren eta hezitzailearen artean harreman estua lortzeko.

Hizkuntzaren, ukimenaren, begiradaren eta abarren bidez komunikazio bat sortuko dugu, eta horrek lagundu egingo dio haurrari bere buruaz jabetzen eta bere buruaren irudi fisiko doitua eskuratzen.

Eguneroko egiteko horien bidez, ongizate- eta osasun-ohiturak antolatuko ditugu, garbitasunarekin eta higie-nearekin lotutakoak. Ohitura horiek sortzen joateko beste bide bat haurrei laguntza eskatzea da: eskuak garbitzeko, mukiak garbitzeko, orrazteko eta abarrerako.

Bigarren ikasturtearen amaiera (gutxi gorabehera) une egokia da esfinterren kontrolari ekiteko.

Pixoihalak lehor denbora luzeagoan irauten duela ikusten badugu (normalean, hemezortzi eta hogeita lau hilabete bitartean izango da), eta haurrak hizkuntza ongi ulertzen duela eta bere mugimenduak kontrolatzeko gai dela, une egokia izango da esfinterrak kontrolatzen erakusteko. Gorputzaren zainketan ordura arte izandako esperientziak onak izan badira, gogo onez onartuko du erakusten zaiona, eta bere gain hartuko ditu, pixkanaka, garbiketa-lanak.

Prozesuari ekiteko, haurrak ulertu egin behar du eskatzen dioguna eta eskatutakoa egiteko interesa izan behar du. Maitasunez eta adore emanez adierazi behar diogu beste gaitasun bat aitortzen diogulako ekin diogula prozesuari, eta gaitasun hori pertsona helduekiko independentzia handiagoa nahi izatearen adierazle dela.

Kontuan izan behar dugu esfinterrak kontrolatzeak harrotasun- eta botere-sentimenduak sortzen dizkiela haurrei.

Pixoihala lehor denbora luzeagoan irauten hasten den garaia une egokia da pixontzia erakutsi eta bertan esertzera gonbidatzeko. Halaber, txiza bakarrik egiten hasi direla ospatuko dugu.

Haur bakoitzaren erritmoari egokitzea, baikorra izatea, pazientzia izatea eta gonbidapenak aldizka egitea funtsezkoak dira pixoihala egunean zehar nahiz behin betiko kentzeko.

Norberaren garbitasuna oso lotuta dago haurrak bere buruaz egiten duen irudiarekin. Norberaren garbitasunarekin lotutako ekintzak, berez, haurraren eta haren ongizatearen afektuaren eta interesaren adierazpenak dira. Garbi egotea eta garbi egoten laguntzea garbiketa-ohitura egokiak hartzetik haragoko esanahia du haurrentzat, ohitura horiek beren autoestimuan islatzen baitira eta beren burua zaintzea merezi duen zerbait dela uste baitute.



1. ALDAGAIA

Atsedena

Nekearen ondoren, haurrak helduak baino azkarrago indarberritzen dira. Haurrak, ordeak, helduak baino azkarrago nekatzen dira. Horrenbestez, jarduera-atsedena zikloak laburragoak dira haurrengan. Horiek horrela, xahututako energia berreskuratzeko ez ezik, heltzeko eta beren burua garatzeko ere baliatzen dute haurrek atsedena eta/edo loa. Beraz, gai hori aintzat hartu beharrekoa da Haurreskolak Partzuergoko jardueren plangintza egiteko.

Haurren loaren ezaugarriak eta ordutegiak aldatu egiten dira, adinaren arabera. Bizitzako lehen hiletan oso lotuta dago jateko zikloarekin. Hori aintzat hartuta, ordutegi komunak ezar ditzakegu, baina malgutasunez jokatzuz, lo hartzeko eta esnatzeko erritmoei egokituz, eta haur bakoitzaren beharrak ahalik eta gehien errespetatuz.

Atsedena hartzeko lekuari dagokionez, aparteko leku bat egokitzea da hoberena, eta leku hori horretarako bakarrik izatea. Leku horrek lasaia izan behar du, soinurik gabekoa, aireztatua, iluntzeko aukera eman behar du, eta sehaskak, koltxonetak edo hamakak eta zaku edo manta indibidualak izan behar ditu. Komeni da, halaber, haurrak arropa arinez janztea, erlaxatuago egon daitezen.

Baliteke lo hartzeko txupetea behar izatea, edo kulunkatzea, manta laztantzea, ilea igurztea, etab. Lo egin aurreko erlaxazio hori lortzeko, lasaitasun emozionaleko giroa sortzen saiatuko da hezitzailea, haurrak gustura senti daitezen. Horretarako, honako bide hauek erabil ditzake:

- Laztanak
- Ipuinak
- Abestiak
- Erlaxatzeko musika...

Hain txikiak izanda, zaila izaten da une oro jakitea zer gertatzen zaien eta zergatik egiten duten negar. Une horiek siestara joan aurretik gertatzen badira, lasaitu egin behar ditugu. Hezitzaileek banan-banan ezagutu behar dituzte haurrak (zerk urduritzen dituen, zer negar-erritmo duten, zenbat denbora aritzen diren negarrez, etab.), lo hartzen laguntzeko estrategiarik onena erabiltzeko.



1. ALDAGAIA

a.2 Jolasa.

Jolasaren bidez, haurrek mundua ikertzen eta deskubritzen dute, gainerako pertsonekin harremanetan jartzen dira, eta beren gaitasunak erabiltzen eta garatzen dituzte. Adin horietan, ez dago jolas-jardueren eta ikaste-jardueren arteko alderik: egiten duten jarduera ororekin ikasten dute haurrek, eta jarduera horiek, batik bat, jolasak izaten dira.

Jolasa da haurtzaroko jarduera nagusia. Jolasaren bidez, haurrek beren gorputza ezagutzen dute, beren nortasuna garatzen eta beren ingurune fisikoa ikertzen eta deskubritzen.

Elkartrukerako esperientzietan, jolasaren bidez, pertsona desberdinekin harremanak ezartzen dituzte eta objektuen ezaugarriak eta desbedintasunak eta hauen arteko harremanak ezagutzen dituzte, ondoren elementu eta erlazio horien errepresentazio mentalera pasatzeko. Modu honetan, ekintza eta esperimentaziotik abiatuz, heuren ekintza eta interpretaziorako eskemak garatzen dituzte.

Halaber, jolasaren bidez, ingurune fisikora egokitzen dira eta, horrekin batera, eraldatu egiten dute.

Honako elementu hauek uztartu behar ditu jolasak: objektu berriak ikertzea, trebetasun berriak erabiltzea, erronka berriei aurre egitea, jada eskuratutako trebetasunak erabiltzeak dakarren gogobetetasuna, eta ezagutzen dena berriz ikertzearen sentsazio atsegina.

Jolasak behaketarako aukera ematen digu, ekintza ugari interpretatu behar baititugu (gehienak esanahi handikoak).

Jolasa behatzeak haurrei buruzko informazio ugari eta askotarikoa ematen dio hezitzaileari. Informazio hori, gainera, aurreragoko esku-hartzeak egokitzeko erabil dezake.

Hezitzaileek badakite zein diren haurren beharrak, horien adinari eta/edo garapen ebolutiboari erreparatuta. Halaber, badakite zer-nolako hurrenkeran agertzen diren jolasak. Ondorioz, jolas horien zentzua interpreta dezakete, eta jolas horiek egiteko lekuak eta materialak neurtu, planifikatu eta banatu ditzakete.

Hezitzaileek, jolasaren bidez, gizarte-trebetasunak hobetzen, inguratzen dituen mundua, ikurak eta seinaleak interpretatzeko gaitasuna handitzen lagunduko diete haurrei, ikasitakoa jolas-egoera berrietan aplikatu dezaten.

Garrantzitsua da adin horretako haurrekin elkarrenergiten duten hezitzaileek haurrak ikasketaren subjektu aktibotzat, protagonistatzat, jotzea, eta haurrak errespetatzea. Ez dute etengabe parte hartu behar haurren jarduera autonomoan. Horrekin batera, txikitatik eman behar diete haurrei aztertze, esperimentatzeko eta pertsonen trukaketa-egoerak bizitzeko aukera, egoerak bizitzeari eta horietan parte hartzeari garrantzia emanez.

Haurren interesari erreparatu behar zaio zer jarduera egin erabakitzeko. Aurretik egindako zerrenda bati begiratu baino, hezitzaileak jolastea sustatu behar du, haurren eguneroko bizipenen funtsezko osagaia den aldetik. Jolasak berezko jarduera izan behar du, haurren eta horien ingurunearen elkarrenergaren baitan.

1. ALDAGAIA

Jolasen sailkapen gehienak artifizialak izaten dira, jolasen osagaiak beti aldi berean ematen baitira. Hala ere, bi urtetik beherako haurren jolasetan honako ikaste-egoerak bereiz ditzakegu:

- **Elkarreragin-jolasa:** helduekin eta beste haur batzuekin gertatzen da hasieran (begiradak trukatzea, irribarreak, zizakaduren bidezko komunikazioa, hartu-eman...), eta, gerora, objektuekin. Irudikatzeko gaitasuna eskuratu ondoren, irudimen- eta asmamen-gaitasun handiagoko jolasak egiten dira, eta, ondorioz, objektuak ez dira aurreko jolasetakoak bezain errealak.

- **Jolas funtzionalak.** Haurren lehen jolasak dira. Hauek bereiz ditzakegu:

- *Trebatze-jolasak.* Mugikortasuna da horien ezaugarri nagusia, eta, ildo horretatik, objektuak mugikortasunerako tresnak baino ez dira.
- *Deskubritze-jolasak.* Jakin-mina eragiten dien zerbaitengana joateko bulkaden ondoriozko jolasak dira.
- *Esplorazio-jolasak.* Jakin-minak helburu jakinagoa du, eta lehendik aurkitutako zerbaiten bila abiatzen dira haurrak.
- *Esperimentazio-jolasak.* Nahita egindako jolasak dira, ekintza jakin batzuk eginda zer gertatzen den ikusteko.
- *Maneiatze-jolasak,* esperimentazio- eta aurkitze-jolasen konbinazio bat dira, jakin-mina aseta baitago, eta sorpresarako lekuri ez baita. Ekintzak behin eta berriz errepikatzen dira materia menderatzearen plazera bizitzeko eta ekintzen kontrolaz gozatzeko: ixtea, irekitzea, dorreak eraikitzea, horiek eraistea, etab.
- *Eskuratze-jolasak,* abestiz, keinuz, soinu, onomatopeiez eta abarrez egindako jarduerak dira.

Sailkapen hori eta bertan adierazten diren egoerak aintzat hartuta, gure hezkuntza-proposamenek ahalik eta gehien errespetatu behar dituzte adin horietako haurren ezaugarri indibidualak, erritmoak eta heltze- eta garatze-mailak. Hori dela-eta, “*Altxorraren kutxa*” eta, Elinor Goldschmied autoreak aholkatutakoari jarraituz, “*Jolas heuristikoa*” aukeratu ditugu, haurren banakotasuna errespetatzeaz gain, ekintzaren ideia dutelako ardatz; “esperimentatuz eta objektuak deskubrituz ikastea”. (Horrela adierazten da hezkuntza-printzipioetan)

Altxorraren kutxa

Haur txikientzat pentsatutako hezkuntza-proposamena da, beren kabuz esertzeko gai direnetik leku batetik bestera beren kabuz joateko gai diren arte lantzekoa (6/8 hiletik -10/12 hilera arte).

Kutxak zumezkoa eta egonkorra izan behar du. 40-50 objektu sartuko ditugu bertan, askotarikoak eta gertukoak, ekintzaren bidez (miazkatuz, kosk eginez, eskuez erabiliz, etab.) zentzumen guztiak (ukimena, usaimena, dastamena, entzumena eta ikusmena) pizteko bide emango dutenak.

Materialek egitura, tenperatura, usain eta ezaugarri askotarikoak izan behar dituzte.

Haurrak denbora luzez jardun dezakete esploratzen eta gauzak eskuz erabiltzen. Hezitzailea behatzaile papelean kokatuko da, *horrek ez du esanahi, ordea, jolasean esku hartu behar duenik.*

1. ALDAGAIA

Jolas heuristikoa

Mugimendu motorra menderatzeak beste garapen-aldi baterako bidea irekitzen du; haurrek eskuragarriago dute mundua, eta, horrekin batera, ikasteko beste modu batzuk.

Mugikortasuna eskuratzearekin batera, beste ekintza / esperientzia azaltzea eragiten du, Jolas heuristikoa.

Eta berri horretan, haurrek hiru galdera hauek egiten dituzte, objektuak ikusita:

- Zer da hori?
- Zer egin dezaket horrekin?
- Zertarako balio du?

Jarduera ludikoa da jolas heuristikoa, eta, horren bidez, 12 eta 24 hil bitarteko haurrek modu askean erabiltzen dituzte objektuak, horien aukerak esploratuz, elkarren artean konbinatuz, eta horien ezaugarriak, erabilerak, orekak, kantitateak eta gainerako alderdiak deskubrituz. Amaitzean, sailkatu egiten dituzte objektuak, bakoitza dagokion lekuan jasoz.

Jolas heuristikoa, beraz, bi zati ditu:

Lehen: Esploratzea

Bigarrena: Jasotzea

Esploratzea. Haurrek askatasun osoz erabiltzen dituzte materialak, horiek sailkatuz, konparatuz eta horiekin esperimendatuz. Hori guztia beren erritmoan egin behar dute, behar duten denbora guztia erabiliz.

Jasotzea. Materiala jasotzea jardueratzat hartu behar da berez; aurreko jarduera bezain interesgarria da haurrentzat, eta, horren bidez, sailkapenak egiten dituzte, objektuak ordenatzen dituzte eta lankidetzaren, autonomia- eta ardura-ohiturak garatzen dituzte.

Jolas heuristikoa buru-jarduerak da, eta beren ikasketaren eragile izateko aukera ematen die haurrei. Ikasketa horrek "asmatu / huts egin" saiakerak ditu oinarrian, eta, ondorioz, ez dago porroterako lekurik, erabiltzen diren materialen bidez ez baita helburu jakin bat lortu behar.

Hezitzailearen egitekoa garrantzitsua da jolas heuristikoari ekiteko. *Haren egitekoa behatzea, antolatzea eta erraztea da, jarrera lasaia eta arretatsua izanda, baina, betiere, haurrekiko tarteak utzita.* Jasotzeko orduan izango du parte-hartze handiagoa, gauza bakoitza bere lekuan jasotzeko eskatuko baitie haurrei. Horretarako, esaldi hauek eta antzekoak erabil ditzake: "Ezetz horrelako beste bat aurkitu?", "horren atzean", "hor aurrean", etab.

Materialen aldagaiari dagokion atalean aztertuko ditugu material-motak, -kantitateak eta horien ezaugarriak.



1. ALDAGAIA

a.3 Psikomotrizitatea

Ezaugarri propioak baditu ere, jolasaren barruan aztertuko dugu psikomotrizitatea, garrantzitsua baita haurren garapenerako.

Bernard Aucouturier hezitzaileak adierazten duenez, psikomotrizitate-praktikak gorputzarekin egin behar du lan eta gorputzetik abiatuta, hura baita gainerako pertsonekin komunikatzeko lehen bidea, emozioen eta sentsazioen oinarria, eta afektibitatea eta nahiak adierazteko tresna. Muskuluen tonua, begirada, distantziak, jolasa, mugimendua, eta, batik bat, *ekintza eta elkarreragina* dira esku-hartzearen elementu nagusiak. Jolasa da tresna, eta bidea zentzumenezkoa eta motorra.

Psikomotrizitateak aukera paregabea ematen die haurrei beren bulkadei bide emateko, erruduntasun-sentimendurik gabe. Bulkada horiek arintzea funtsezkoa da oreka afektiboa lortzeko.

Hauek dira psikomotrizitate-praktikaren helburuak:

- Subjektibitatea eraikitzen laguntzea.
- Komunikazioa gertatzeko harreman-baldintzak sortzea.
- Sormena adierazten laguntzea.
- Pentsamendu operatiborako bidea erraztea.

4 hilabete eginda, haurrek ez dute hainbeste denbora egin behar sehaskan. Espazio alternatibo egoki bat eskaini behar zaie. Garai horretan, ez da ohikoa berariazko motrizitate-saioak egitea, baina espazio bat eskaini behar diegu askatasunez mugitzeko eta ekintzaren eta transformazioaren plazera bizitzeko: psikomotrizitatea.

Garapena erraztuko duen giroa eskatzen du psikomotrizitate-praktikak, eta, giro hori lortzeko, askatasunez mugitzeko lekua eskaini behar zaie haurrei, espazioa eta inguruko objektuak esploratzeko, arriskurik gabe eta segurtasun osoz, bai leku fisikoari dagokionez (istripu-arriskuak ezabatuz), bai alderdi afektiboari dagokionez (haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz). Horrekin batera, aurrez finkatutako arauetatik harago, debekurik ez jartzen saiaturako gara pertsona helduak.

Horrenbestez, materialak aurrez jarri behar dira, aretoko edo gelako txokoren batean antolatuta, taldearen beharrak aintzat hartuz.

Material bigunak babes afektiboarekin lotzen dira, babesleku dira, harremanak sustatzen dituzte, sentimendu sakonekin lotzeko aukera ematen dute, eta jolas sinbolikorako ate dira.

Adin horietan, saioa prestatze-lanekin hasiko da (arropa eta oinetakoak erantzi, etab.), jolastera goazela adierazteko.

Saioak aurrera eramateko, lekualdaketak, birak, irristatzeak, arrastatzeak, eraistekak, jauziak, balantzak, erorketak eta abar egiteko baldintzak sortuko ditugu. Espazio horretan bizitako esperientziek orekarekin lotutako aukerak esploratzeko bide emango diete haurrei, eta nortasuna eraikitzen lagunduko die, lagun duten helduarekin konpartitutako jolasaren baitan. Horren bidez, emozio sakonenekin lotzeko aukera irekiko diegu.

Amaitzeko, ohiturtzat hartuko dugu saioaren hasieran kendutako oinetakoak eta arropak janztea. Hazten doazen heinean, narrazio txikiren bat ere konta dezakegu.

Hezitzailearen egitekoa indibidualizazio-prozesua finkatzea da, eta haurren heltze emozionalari eta psikikoari laguntzeko kanpo-baldintzak, baldintza-materialak eta harreman-baldintzak sortzea. Horiek guztiek haurren erritmoa eta premiak errespetatu behar dituzte. Horrenbestez, nortasuna eraikitzeko prozesua, “ni /-ez-ni” bereiztekoa, ahalik eta atsegina izan dadin saiatuko gara. Hezitzaileak lagundu egin behar du, baina aurreratu gabe, egiten utzi behar du, entzun, hartu, jarrera argiak eta esanguratsuak hartuz, hitzen, keinuen eta posturen bidez.



1. ALDAGAIA

a.4 Aparteko jarduerak

Eguneroko jardueraz gain, badaude aldizkakotasun hori ez duten beste jarduera batzuk, apartekoak. Haurreskola bakoitzak erabakiko du zein izango diren, testuinguruari, interesei, aukerei eta gainerako inguruabarrei erreparatuta. Hona zenbait adibide:

- Olentzero.
- Urtebetetzeak.
- Santa Ageda.
- Inauteriak.
- Jaiak.
- Inguruetara egindako irteerak.
- Txangoak...

Taldeak ordutegi bat finkatu badu (haurren erritmoekin eta premiekin bat egiten duena), egunerokoak ez diren jarduerak egiteko aukera izango dugu.

Ospakizunek, jaiek, ustekabeko bisitek, eta antzerakoek emango digute horretarako aukera. Arrazoi ugari egon daitezke aparteko jarduera horiek antolatze edo inprobisatzeko. Urtebetetzeak aukera ona dira haur bakoitzaren errealitatera gerturatzeko: beren senideen argazkiak ekartzera gonbida ditzakegu, etab. Beste batzuetan, berriz, gelako dinamika aldatu egiten da taldeak, eta, batik bat, hezitzaileak Olentzero, inauteriak edo herri-egutegiko beste ospakizun batzuk antolatzen edo ospatzen ari direlako.

Jarduera horiek osatu egiten dituzte eguneroko proposamenak. Jarduera horiek programatu egin daitezke, proiektu baten barruan edo inprobisatuak izan daitezke, taldeak azaldutako interes batetik abiatuta.




Espazio batean sartu eta horri begiratzen badiogu, informazio baliagarria eskeiniko digu bertan zein historia bizi den jakiteko.

Espazioa da bertan egiten denaren isla eta kalitatearen adierazlerik argienetakoa; beraz, ez dugu azpimarratu beharrik haren garrantzia. Bertan gertatzen dira hezkuntza-ekintzak eta eguneroko bizipenak.

Espazioaren, denboraren eta taldearen antolaketak ez du izaeren, interesen eta gaitasunen aniztasuna kaltetu behar. Gauzak egin ditzaketela sentitu behar dute haurrek eta gehienetan emaitza onak lortzen dituztela, batzuetan ahalegin bereziak egin behar badituzte ere. Hori lortzeko, espazio eta alternatiba bat baino gehiago eskaini behar ditugu, eta denbora modu orekatuan antolatu: batzuetan gehiago eskatuz, eta beste batzuetan erlaxazioari bide emanez; batzuetan askatasun handiagoa emanez, eta beste batzuetan jarduerak gehiago zuzenduz.

Haurren garapena errazteko eta sustatzeko behatu egin behar da. Espazioaren eta denboraren banaketak haur bakoitzaren eta talde guztiaren behaketa izan behar du oinarrian.



Zein hezkuntza-printzipioek adierazten dute espazioaren, denboraren eta taldeen arteko banaketa zuzena?

HEZKUNTZA PRINTZIBIOA	ESPAZIOEN, DENBOREN ETA TALDEEN BANAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

2. ALDAGAIA

Ez da dena modu berean eta aldi berean ikasten, ezta pertsona berdinekin ere. Ikasketa bakoitzak bere denbora eta lekua behar du.

Ezin ditugu parekatu natura behatzea (kalean, talde handian eta denbora-epe jakin batean) eta nik bultzatutako dorrea nola erortzen den ikustea (gelan, segundo batean eta hainbat aldiz errepikatua ikasturtean zehar, neuk bakarrik).

Baina espazio edo leku horiek segurtasuna eman behar digute eta mugatuta egon behar dute, fidagarriak eta egonkorak izan, eta denborak tartekatu: batzuek aurretik jakinak izan behar dute, segurtasuna emateko, eta, beste batzuek, berriz, sorpresarako denborak izan behar dute, sumatzekoak.

Zer eta nola egiten den jakiteko, segurtasuna zerk ematen duen eta urduritasuna zerk sortzen duen jakiteko, garapena zerk bultzatzen duen eta hura zerk moteltzen duen jakiteko, beharrezkoa da behatzea, entzutea eta hurrekiko eta ingurunearekiko bitartekotza-lana egitea. Beharrezkoa da, halaber, diren bezalakoak izaten utziko dien hezkuntza-proposamen bat egitea, behatzea eta ikertzea, jolasa beren egiteko eta ikasteko modua dela jakinda.

Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (lehia kognitiboa, pentsamendu eskemen mobilizazioa...). Testuinguruak eskaini behar zaizkie, pentsatzeko eta jarduteko premia bizi dezaten. Lasaitasunez, bizitakoari buruzko gogoeta eginez eta bizitakoa barneratuz, horiek bereganatzeko.

Ikertzeko premiak haxe eskatzen du: zer egin, nola egin eta norekin egin aukeratzeko utziko duten guneak eta uneak eskaintzea.

a. Espazioak.

Deskubritzeko eta esperimintatzeko espazioak antolatzea eskatzen du ikertzeko premiak; hau da, bizipenak bizitzeko gogoia piztuko duten guneak antolatzea. Komeni da zenbait jolas-gune antolatzea, haurren interesa piztu dezaten. Gune horietan, aise aurkitu behar dute zereginen bat, eta ,objetuak eskuragarri egon behar dira talde txikietan jolastea bultzatzeko. Hori horrela izan dadin, jolas-guneek ordenari eutsi behar diote, eta gune horietako altzariak egokiak izan behar dute objektuak haurren neurrira ordenatzeko eta haurrengan horiekin jolasteko gogoia pizteko.

Espazioaren antolaketan, kontutan hartu beharreko beste kontu bat taldearen gaineko hezitzailearen begirada periferikoa da eta pertsona heldua ikusterakoan haurrak irisgarritasun egokia izatea. Espazioak ez badira behar bezala antolatzen, trabek oztopatu egin dezakete hezitzaileek eta haurrak elkar ikustea, istripuak izateko arriskua egon daiteke (kolpeak eta erorketak), etab.

2. ALDAGAIA

Haurreskola

Haurren beharretara egokituko ditu espazioak, eta, posible bada, hezitzaileentzako, irakaskuntzakoak ez diren langileentzako eta familientzako lekuak izango dituzte. Espazio komunak ere izan behar dituzte: sarrera, komunak, jolastokia eta psikomotrizitate-gela edo balio anitzekoa.

Sarrera, bere tamainuaren arabera, egokia izan daiteke haurrak gelara sartu baino lehen prestatzeko (familiek bertan erantzi diezaiekete arropa hurrei, arropa erosoak jantzi, etab.). Haurrak bertan presta daitezke familiei agur esateko edo familiarekin berriz elkartzeko. Halaber, familiak bertan ezagutu dezakete elkar eta talde-kontzientzia osatu.

Gela

Gelak ez du espazio konplexua izan behar; aitzitik, diseinu sinplekoa izan behar du. Gelak espazio hauek izan behar ditu, ezinbestez:

Atsedenerako edo lotarako gunea. Hezitzaileak ikusteko moduan egon behar badu ere, gelatik aparte egon behar du, bertara soinurik sar ez dadin. Haurren atsedena aldiak errespetatzen lagunduko digu antolaketa horrek.

Garbiketarako eta pixoihalak aldatzeko gunea. Posible bada, gainerako haurrak ikusteko aukera eman behar digu, haur bat garbitzen ari garen bitartean.

Jolasteko eta mugitzeko gunea. Bertan egingo dira atsedenarekin, garbiketarekin edo jatearekin zerikusirik ez duten jardura guztiak. Gune horretan hartuko dugu haurra haurreskolara etortzen denean, bertan agurtuko dugu, eta bertan hitz egingo dugu helduekin modu informalean.

Espazio irekia izango da, eta haurrek denbora-epe luzeak egingo dituzte bertan; beraz, leku goxoa izan behar du, eroso, ongi pentsatutako altzariak eta materialak dituen, eta lortu nahi dugunerako egokia.

Hala ere, haurren adinari, horien premiei eta haurreskolaren aukerei erreparatuta, espazioaren beste banaketa batzuk planteatu daitezke, gune iraunkorrak eta aldagarriak izango dituen ikasturtean zehar; esaterako:

- Eraikuntza-jolasetarako gunea.
- Mugimendurako gunea (Psikomotrizitatea)
- Esperimentatzeko gunea.
- Arterako gunea.
- Musikarako gunea.
- Korrarako gunea (haur handienentzat)
- Jolas sinbolikorako gunea (haur handienentzat)

Aintzat harturik, beti espazio horietan lortu nahi ditugun helburuak, ezin dugu ahaztu proposamenen bat markatu gabe utzi badugu, ez duela esan nahi jolaseko eta mugimenduko gunean horiek landu behar ez direnik.

2. ALDAGAIA

Jolastokia

Espazio horren antolaketak mugimendua piztu eta bultzatu behar du. Horretarako, txirrista txikiak, kulunkak, palez eta potoz hornitutako hondar-gunea, gainean ibiltzeko askotariko tresnak, etab. izango ditu.

Psikomotrizitate-gela

Adinaren arabera, psikomotrizitate-txoko bat presta dezakegu gelan bertan txikientzat, konpartitutako psikomotrizitate-gela bat handientzat, edo biak batera egin.

Egindako aukera edozein izanda ere, ahalmen guztiak garatzeko segurtasun-esparrua sortu behar dugu, ekintza eta mugimendua jotzen baititugu adimena osatzeko prozesuen oinarritzat.

Beharrezkoa da espazio antolatu bat prestatzea, berariazko materiala izango duena eta lurrean jarduerak egiteko baldintza egokiak izango dituen: ahoz gorako jarreretatik ahuspez jartzera igarotzeko eta alderantziz, arrastatzeko, pirritan ibiltzeko, esertzeko, zutik jartzeko, lau hankatan ibiltzeko, etab.

Blokeak baliagarriak izango zaizkigu arrapalak, eskailerak, tunelak eta antzekoak egiteko; eta barra bertikalek eta horizontalek zutik jartzen lagunduko diete hurrei, betiere, haur bakoitzaren interesen, aukeren, erritmoaren eta nahiaren arabera.

1. aldagaian adierazitakoari jarraituz, material egokiak jarriko dira: heltzeko errazak, botatzekoak, ispiluak, ezkutatzeko oihalak, pilota bigunak, kuboak, eraikitze-lanetarako blokeak, etab.

Jangela

Hitz egin dugu jangelari buruz aurreko aldagaian, baina nabarmendu beharrekoa da espazio horretan osasun-ohitura onak sortzeko, harreman positiboak sustatzeko eta hurrek beren buruaren irudi ona sor dezaten laguntzeko, bereziki zaindu behar dugula bertako giroa.

Hauek dira jatordu orotan bizi beharrekoak: gosea asetzea, zaporeez gozatzea eta lagunarte lasai eta atsegina izatea.

Txikienak: Biberioa gelan har dezakete, eta, posible bada, besotan emango zaie, bakoitzari arreta osoa eskainiz. Komeni da janari solidoak ematen hastean postura horretan ematea, harik eta, haurren parte hartzeko nahia erreparatuta, aurrez aurre ematea egokiagoa dela ikusi arte. Horixe da unerik egokiena haurrari protagonismoa emateko, animatzeko eta bere ahaleginetan laguntzeko.

Erdikoak: oraindik arreta handia behar badute ere, haur hauek gai dira mahaian jateko. Pixkanaka, aurrerapausoak egingo dituzte, bakarrik jaten lortu arte. Hasieran, eskuak erabiliko dituzte, eta, aurrerago, mahai-tresnak erabiltzen eta arau txiki batzuk betetzen erakutsiko zaie.

2. ALDAGAIA

Handienak: autonomia handiagoa dutenez, bakarrik edo laguntza gutxirekin jan dezakete. Bazkari kolektiboagoei ekiteko moduan daudela esan dezakegu, baina talde txikietan izan beharko du, zarata handiak, tentsioak eta antzekoak alde batera utzita. Horrez gain, ondoan izan behar dituzte erreferentziako hezitzaileak, balizko zailtasunei aurre egiten laguntzeko eta, pixkanaka, arau jakin batzuk bete behar dituztela erakusteko.

Ezin dugu ahaztu zenbaitetan ez dutela janari jakin batzuk jan nahiko, eta garai batzuetan jateko gogo gutxiago izango dutela. Hezitzaileek tolerantziaz tratatu beharko dituzte egoera horiek.

Funtsezkoa da jatorduen ordutegia tentu handiz aukeratzea, haurrak nekatuta, gosetuta edo logale badaude, tentsio- eta suminkortasun-egoerak sor baitaitezke.



b. Denbora

Eguneko denbora banatzeko, aintzat hartu behar dugu haur bakoitzak bere garatze-, heltze- eta ikaste-erritmoa duela, eta, ondorioz, ekintzarako denbora ezberdinak behar dituztela. Gainera, etapa horretan haur guztiak ez dira ordu berean sartzen eta irteten. Horrenbestez, beharrezkoa izango da arreta banan-banakoa izatea.

Erritmo biologikoak asetzea (atsedena, garbitasuna eta elikadura) eta iristeko ordua, jolastokira irteteko ordua, haurreskolatik irteteko ordua eta gainerako uneak antolatzea izango da denboraren antolaketaren lehen xedea. Errutina horien guztien bidez, denborari buruzko kontzeptu sinpleak bereganatzen hasiko dira haurrak: lehenago, geroago, etab.

Haur Hezkuntzako curriculum-a hiru atalen inguruan antolatzeak ez du esanahi denbora horietako bakoitzari begira antolatu behar dugunik, denboraren antolaketak haurrek egiten eta ikasten duten guztia errespetatu behar baitu, osotasunean. Haurren jolasteko, esperimentatzeko, bizitzeko, hazteko, ikasteko eta abarrerako moduek ez dute konpartimenturik onartzen.




2. ALDAGAIA

c. Taldeak

Taldeak egiteko, haurren adinari erreparatuko diogu, eta, haurreskolak bere gain hartu baditzake, beste aldagai batzuei ere bai; esaterako, preferentziari eta jarduerari. Planteamendua malgua izango da, hezkuntza-ekintza errazteko.

Ez dugu ahaztu behar adin horietako hurrek, taldean egon arren, banaka ibiltzeko joera dutela; hau da, beste batzuen ondoan jolasten direla, baina ez direla nahita jolasten beste haur batzuekin. Pixkanaka, harreman handiagoa eskatzen duten materialak sartuko ditugu, eta xede hori izango duten egoerak sorraraziko ditugu.

Osatutako taldeen jarraipena eta egonkortasuna bultzatzeko, gomendagarria da (gerora beste haur batzuk sartzen badira ere) taldeek hezitzaileei eustea ikasturte hasieratik amaieraraino.



5.4.3

3. ALDAGAIA

MATERIALEN ANTOLAKETA ETA AUKERAKETA

Materialak aukeratu eta eskuratu baino lehen, kontuan hartu behar dugu zertarako nahi ditugun, nolakoak izan behar duten, zer garatzen lagundu behar diguten, nola aurkeztuko ditugun eta noiz berriro beharko ditugun. Jolaseko materialak ez dira erabili behar gizarte-elkarreraginak (hezitzailearekin edo gainerako hurrekin) ordeztzeko soilik.

Haurren ezagutza-eskeman zenbait lotura egiten laguntzen dute materialek, eta aukera ematen dute lehendabiziko kontzeptuak osatzeko eta objektuei, espazioari eta errealitateari buruzko ideia zehatzak egiteko eta informazioa jasotzeko.

Materialak oso garrantzitsuak dira gure hezkuntza-lana egiteko, eta horiei buruz hausnartu behar da, horiek eskuratu baino lehen.



Aurreko aldagaia justifikatzeko erabilitako printzipioek lotura zuzena dute aldagai honi buruz hartu beharreko erabakiekin, espazioari eta materialari buruz hartu beharreko erabakiak banaezinak baitira. Printzipio horiek adierazten digutenez, haurren erritmoa errespetatu behar dugu, haien ekimenak eta jarduera autonomia bultzatuz. Hauek dira printzipioak:

HEZKUNTZA PRINTZIPIOA	MATERIALEN ANTOLAKETA ETA AUKERAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

3. ALDAGAIA

Haur bakoitza berezia da, eta haur bakoitzak arlo afektiboan, sozialean eta kognitiboan heltzeko erritmo propioa du; beraz, errespetatu eta bultzatu egin behar da erritmo hori, ingurune segurua eta lasaitasuna emango duena sortuz.

Erreferentziazko pertsona helduak estimulu doiak eman behar ditu aukeratutako materialen bidez. Izan ere, Kintela J. autoreak adierazten duen moduan, ez da neurritz gain estimulatu behar eta gure xedeak ez du izan behar hurrek helburu batzuk garaia baino lehen lortzea; aitzitik, heltze-prozesu propioak errespetatu behar dira, eta itxaroten jakin behar dugu. Denbora, lasaitasuna eta goxotasuna izan behar ditugu. *“Konfiantza izan behar dugu haien gaitasunean... Horrek guztiak hauxe eskatzen dio pertsona helduari: zain egotea, itxaroten jakitea, gertakarien aurretik ez jardutea, eta haurren orde ez jardutea”*

Behar ditugun materialek 9. hezkuntza-printzipioa bete behar dute: “arlo pertsonalean eta intelektualean hazteko, kanpo-jarduera handia (jolasa, mugimendua) behar da, baina baita barne-jarduera handia ere. Beraz, hezkuntza-proposamenek ikasteko egokiak izan behar dute, eta gozatzeko eta ahalegintzeko aukera eman behar diete hurrei, giro ludiko eta alaian, estimuluak doiak direla”. Printzipio hori betetzeaz gain, nork bere burua ezagutzeko eta hazteko aukera eman behar dute, hurrei nortasun osasuntsua garatzen laguntzeko. Halaber, printzipio hori betetzeko, honako hauek erraztu behar dituzte:

- Jolas motorra eta gorputz-jolasa.
- Eskuzko erabilpena, behaketa eta esperimentazioa.
- Komunikazioa eta adierazpena.
- Pentsamendu logikoa.
- Gizarte-rolak eta egitekoak errepikatzekeko jolasak.

Material komertzialaz gain (batzuetan, egituratuegia), hondakinak eta eguneroko bizitzako objektuak erabil ditzakegu (kaxak, oihalak, egurrezko koilarak, poteak, pintzak, etab.), baina, betiere, segurtasun printzipioei erreparatuz.

Komeni da behaketa-lana egitea, materialei buruzko plangintza egiteko, bai materialak jartzean eragin egokia izan dezaten, bai horiek non jarri behar diren erabakitzeke. Adi egon behar dugu, eta, adierazitakoari jarraituz, ez ditugu gauza eta material gehiegi jarri behar; hobe da gutxiago jartzea eta horiek txandatzin ibiltzea, jolasteko moduen, erabileren, lorpenen, finkatutako gauzen eta erronka berrien arabera.

Kintela J. autoreak adierazitakoaren ildotik, esan beharra dugu ekipamenduaren ideiak [gutxienezkoa] gelako objektuak eta materialak ere jasotzen dituela. *Hurrek, batik bat, gure denbora eta lasaitasuna behar dute, gu goxo azaltzea eta haien eskura izatea.*

Objektuei dagokienez, gutxi behar dituzte, eta kalitatezkoak. Kalitatearen erreferentzia, batzuetan, materiala nola egin den eta zerekin egin den izaten da, eta, beste batzuetan, material interesgarria izateko ematen dituen aukerak (esaterako, kartoizko kaxa handi bat hurrek bertan sartzeko erabiltzen badugu, egun gutxi iraungo ditu osorik, baina ematen dituen aukerak kalitatezko material bihurtzen dute).

Autore horren arabera, baliabideen soiltasuna eta gure familiaren eta aiton-amonen jolas-ohiturak berreskuratzea (baliabide gutxiarekin jolas sortzaileak asmatzen zituzten) abiapuntu ona izan daiteke.

Ez da materiala alferrik xahutu behar; aitzitik, zaindu egin behar da eta haren balioaz ohartarazi. Horretarako, ordea, ez da nahikoa arau jakin batzuk hitzez adieraztea, gauzak duintasunez erabiltzen ditugula ikusi behar dute hurrek: panpina bati besoa erori bazaio,

3. ALDAGAIA

josi egingo dugu, haurrak aurrean ditugula; ipuin bateko orriak askatu badira, haien laguntzaz itsatsiko ditugu, etab.

Objektuei, materialei eta horien esplorazioari dagokionez, interes handikoak ditugu Elinor Goldschmied autoreak jolas heuristikorako egiten dituen proposamenak:

Altxorraren kutxarako materialak

- Naturako objektuak: harri ertainak, oskolak, laranjak, belakiak...
- Material naturalez egindakoak: harilkoak, pintatzeko pintzelak, hortzetako eskuilak, zapitakoak, etab.
- Egurrezkoak: kaxak, kubo txikiak, josteko saskiak, kriskitinak, arropa zabaltzeko pintzak, gortinen uztaiak...
- Metalezkoak: koilarak, gozogintza-moldeak, bizikleta-txirrinak, kaskabiloak...
- Kartoizkoak: komuneko paper-biribilkiak, kaxak, etab.
- Larruzko, telazko eta gomazko objektuak: diru-zorroak, pilotak, peluxeak, zintak...

Jolas heuristikoa

Baldintzak:

- Hamabost objektu behar ditugu, gutxienez.
- Ez badugu materiala erabili behar, poltsetan (50 cm x 50 cm) gordeko dugu, eta zintekin itxi. Poltsa bat erabiliko dugu objektu-mota bakoitzerako.
- Mota bakoitzeko objektu ugari (objektu bakoitzeko 50 edo 60 unitate)
- Poteak, objetuen ondoan kokatuko direnak.
- Hezitzaileak jarriko ditu objektuak, eta haurrek aukeratuko dituzte. Ez zaie iradokizunik egingo.

Materialak:

- Gortinen uztaiak eta kafeontzietakoak.
- Ile-kizkurgailuak, ehoziak
- Kateak, hainbat luzeratakoak.
- Arropa zabaltzeko pintzak
- Ping-pongeko pilotak
- Ile-apaindegiko erruloak
- Metalezko, kartoizko, egurrezko eta beste material batzuetako kaxak
- Koko-azalak
- Kartoizko zilindroak
- Setazko, belusezko eta beste material batzuez egindako zintak
- Kolore askotako lokarriak
- Giltzak
- Pinaburuak
- Artilezko borlak
- Poteen metalezko tapak
- Egur-zatiak
- Etab.



4. ALDAGAIA

PERTSONAL BALIABIDEEN ANTOLAKETA

Kasu honetan, printzipioen eta aldagaien arteko erlazioak ez die soilik haurrei begiratu behar. Aintzat hartu behar ditu hezitzaileak ere.

HEZKUNTZA PRINTZIPIOA	PERTSONAL BALIABIDEEN ANTOLAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

4. ALDAGAIA

Horiek horrela, aukeratutako printzipioen bidez, haxe aitortzen dugu: haurren moduan, helduek ere gaitasun ezberdinak ditugula, eta aitorpena, onarpena, segurtasuna eta lasaitasuna behar ditugula.

Lanean onespena eta arrakasta izatea gustatzen zaigula, eta ongi deritzogula atsegin zaiguna hautatzeko aukera izateari (6. printzipioa)

Gainera, komeni da hori guztia betetzea ardurak, lanak eta taldeak banatu behar baditugu; izan ere, haurren Ni osasuntsua bultzatzeko eta errazteko ardura lan zaila da, eta pertsona heldu gogobeteak behar dira horri ekiteko, beren egitekoa bi funtzio hauen baitan beteko dutenak:

- Gauzak egitea eta egiten dutenari buruz hausnartzea (9. printzipioa).
- Beren lan profesionala lankideekin konpartitzea, haurreskolan kultura komun bat sortzeko. Kultura komun horrek aberastu egingo ditu bai haurrak, bai haurren hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona helduak (11. printzipioa).

Honela dio 8. printzipioak: *“adin horretako hurrek ikas dezaten, hezkuntza-proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute. Halaber, erronkek garrantzi handia dute, hazteko motibazioa bultzatzen baitute”*. Printzipio hori beteta, gomendagarria da gure jarduera ezagutzen ditugun alderdietan oinarritzea, eroso senti gaitezen; baina, arlo profesionalean hazteko, gomendagarria, era berean, ikertzea, berritzea eta proposamen berriak probatzea. Haurreskolako eta haurreskoletako kultura komuna sortu behar dugu, eta prestatzeko eta informazioa jasotzeko aukera izan.

Hori guztia aintzat hartuta, zorroztasunez antolatu eta planifikatu behar ditugu pertsonal baliabideak, hurrei ahalik eta ingurune egokiena eskaintzeko. Ingurune horrek haurren garapena sustatu eta erraztu behar du, eta, beharrezkoa bada, balizko gabeziak konpentsatu.

Hezitzaileek, pertsona helduen eta haurren kopuruari eta horietako bakoitzaren ezaugarri espezifikoari erreparatuta, laneko plantilaren erabilera ahalik eta arrazionalena egin behar dute. Ildo horretatik, funtsezko zenbait gai erabaki eta justifikatu behar dituzte; esaterako, zer irizpide erabili dituzten:

- a. Taldeak egiteko.
- b. Taldeak banatzeko.
- c. Koordinatzailea aukeratzeko.
- d. Ardurak banatzeko.

Hezitzaile-taldea antolatzen jakitea oinarritzkoa da haurreskolak ongi funtziona dezan eta langileak pozik egon daitezen. Hori lortzea onuragarria izango da arlo profesionalean.



5. ALDAGAIA

BEHAKETAREN ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Adin horietan, behaketa ebaluaketarako funtsezko elementua da. Gure hezkuntza-interbentzioak hobetzen laguntzen digu, baita familiekiko harremanak eta haurreskolaren antolamendu eta funtzionamendu orokorra ere. Behaketa metodo zientifikoa da, planifikazioa eta jarduera sistematikoak eskatzen dituen. Ebaluatzeko, hezitzaileak behartzen jakin behar du.

Haur guztiak dira ezberdinak, eta gure egiteko profesionala da hurrei izaten laguntzea eta arlo afektiboan, sozialean eta kognitiboan hezten laguntzea. Hori lortzeko, beharrezkoa da jarduerak planifikatzea, eta plangintza horrek, ezinbestez, pertsona bakoitzaren izatetik abiatu behar du. Jakin egin behar dugu zer dakiten hurrek, zer pentsatzen duten, nolakoak diren, zer ikasi nahi duten eta zer ikas dezaketen (hasierako ebaluazioa), horiek guztiak aintzat hartu eta gure esku-hartzea horietara moldatzeko.

Hezkuntza-prozesuan zehar jarraipen bat egitean datza ebaluazioa, prozesu horren bilakaerari buruzko informazioa lortzeko (etengabeko ebaluazioa). Horren bidez, esku-hartzeak egoki ditzakegu, ezarritako helburuen lorpenaren arabera, bai talde osoari dagokionez, bai pertsona bakoitzari dagokionez.

Prozesua amaitzean, amaierako ebaluazioa egin behar da. Ebaluazio horrek jakinaraziko digu haur bakoitzak zer-nolako heldze-bilakaera orokorra izan duen, eta zenbateraino bete dituen ezarritako helburuak. Halaber, pertsona helduen esku-hartzeak, estrategiak eta erabilitako baliabideak aztertuko dira.



Horrenbestez, behaketa eta informazioa antolatzeneko prozesuari ekin baino lehen, aintzat hartu behar ditugu lan horren oinarrian dauden hezkuntza-printzipioak:

HEZKUNTZA PRINTZIBIOA	BEHAKETAREN ETA INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

5. ALDAGAIA

Hezkuntza-ebaluazioak **erabilgarria** izan behar du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin zerikusia duten pertsonentzat eta erakundeentzat. Hezkuntza-egoera bat ebaluatzeko behatzeak duen erabilgarritasuna ez da bera hezitzailearentzat, familiarentzat, haurreskolarentzat edo kanpo-eragileentzat.

Ebaluazioak **egingarria eta errealista** izan behar du. Prozesua konplexua denez, ez da beharrezkoa hasieratik zehatz-mehatz egitea. Eragina duten faktoreetatik, alderdi hauexek aukeratuko ditugu: egingarriak izanda, kalitatezko interbentzioak egiteko aukera emango digutenak.

Ebaluazioak **parte-hartzailea izan** behar du, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten guztien artean adostua.

Ebaluazioa **barrukoa** izan daiteke, haurreskolako hezkuntza-komunitateko kideena eta kide horien artekoa bada; eta **kanpokoa**, haurreskolaren hezkuntza-komunitatetik kanpoko eragileek egiten badute. Ebaluazioa **argi eta garbi zehaztu** behar da, horren bidez lortutako informazioa jakina, adostua, eztabaidatua, zehatza, objektiboa eta doia izan dadin.

Hezkuntza-prozesuan ez dute soilik hurrek parte hartzen, haurreskolaren eta familien egitekoa ere erabakigarria baita.

Ebaluazioa, beraz, honako hauei buruzkoa izango da:

1. Haurren garapen-prozesuari buruzkoa.
2. Familien parte-hartze bideei buruzkoa.
3. Haurreskolaren hezkuntza- eta antolamendu-interbentzioari buruzkoa.

a. Haurren garapen-prozesua

a.1 Egokitzapen-garaia

Haurreskolak dira hurrek hezkuntza-sistemaren barruan ezagutuko duten lehen zentroa; beraz, hezitzaileak eta familiak arduratu behar dira eskolaratze hori ahalik eta hoberena izan dadin.

Hurrek ez dute haurreskola ezagutzen. Espazioak, materialak, denboraren banaketa, eta, batik bat, pertsonak ezezagunak dituzte; hortaz, familiekin adostutako egokitzapen-garai bat ezarri behar da, hurrei egoera berrira egokitzen laguntzeko.

Familiaren eta haurreskolaren arteko harremana funtsezkoa da prozesu horretan. Bi horien arteko komunikazioaren eta haurren behaketa zuzenaren bidez, informazio aberatsa eta askotarikoa jasoko dugu garai horretan, eta informazio horretan oinarritu ahalko gara gure hezkuntza-interbentzioa haur bakoitzaren premietara egoki dadin.

Komeni da familiak emango digun informazioa jasotzeko fitxa bat prest izatea. Fitxa horretan informazio hau jasoko da: datu pertsonalak, senideei buruzko datuak, datu psikoebolutiboak, osasun-egoera, ohiturak, errutinak, jarrerak, etab..

Halaber, komeni da behaketa-gida bat izatea, modu sistematikoan jasotzeko hurrek garai horretan egiten duten bilakaera. Garai horren iraupena haur bakoitzaren arabera izango da.

5. ALDAGAIA

Behaketa-gida horrek honako erregistro hauek izan behar lituzke, besteak beste:

a.1.a Sarreran / harreran

- Zer egoeratan dagoen gelara sartzean.
- Zer adierazten du familiarengandik urruntzen denean.
- Espazio edo objekturen bati atxikitzen zaion.
- Familiak denbora ematen duen gelan haurrarekin.
- Helduaren jarrerak haurrari laguntzen dion.
- Gelan pertsona helduari helduta mugitzen den, bakarrik...
- Egunak igaro ahala gertatzen diren jarrera-aldaketak, etab.

a.1.b Gelako egonaldian

- Espazioekiko
- Materialekiko
- Denborekiko
- Gainerako hurrekiko
- Hezitzaileekiko
- Eguneroko egitekoekiko
- Jarduerakiko

a.1.c Agurtzean

- Nola irteten den gelatik
- Familiaren interesa eta jarrera

a.2 Garapen-prozesuaren ebaluazioa

Ebaluazioak etengabea eta prestakuntzakoa izan behar du, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) helburuetan adierazitako gaitasun-multzoari erreparatu behar dio.

Behaketa zuzena eta sistematikoa da haurrak ebaluatzeko prozesuaren teknika nagusia, eta haurren gaitasunak garatzea izango du xede.

Garapen-prozesuaren arlo guztien bilakaerari buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa eman behar du ebaluazioak. Era berean, parte hartze didaktikoa zehazten utzi behar digu, hau da, prozesuaren fase desberdinetan, aldaketak egin, gaia berbideratu edo berraztertze aukera eman behar du. Datuak jasotzeko, eremu bakoitzari buruzko egoera desberdinetan informazioa bilduko da:

a.2.a Nortasuna eta autonomia

- Gorputzaren ezagutza.
- Gogo-aldarteen, emozioen, beharren, lehentasunen eta abarren adierazpena
- Arreta-gaitasunaren garapena.
- Autonomiaren garapena.
- Segurtasuna; jarrera ausartegien eta/edo inhibituen kontrola...
- Garapen motorra.
- Jarrera eta laguntza eguneroko egitekotan.
- Etab.

5. ALDAGAIA

a.2.b Ingurune fisiko eta soziala

- Objektuak maneiatzea.
- Helduekiko elkarreragina.
- Gainerako haurrekiko elkarreragina.
- Espazioekiko, objektuekiko eta inguruarekiko harremana.
- Parte-hartzea banakako jardueretan, taldeko jardueretan, haurreskolan eta haurreskolatik kanpo.
- Arauak onartzen joatea.
- Ingurunera egokitzea.
- Denboren segidaren kontzientzia hartzea .
- Etab.

a.2.c Komunikazioa eta errepresentazioa

- Gorputz-adierazpena.
- Hizkuntza-garapena; hitzak ulertzeko gaitasuna, hitzezko adierazpena...
- Irudien, sinboloen eta abarren ezagutza eta interpretazioa.
- Objektuak esploratzea eta maneiatzea, aukerak deskubritzea, etab...
- Materialak teknika bat baino gehiagoren bidez esperimendatzea.
- Etab.

Hezkuntza-taldeak erabaki behar du noiz egin txostenak, baina, adierazi dugunez, idatzizko txostena osatzeko egin behar den behaketak etengabea izan behar du, eta hezkuntza-prozesuaren parte izan.

Haurreskola bakoitzean hartzen diren erabakiak hartzen direla, idatzizko txosten bat egingo da ikasturtea amaitzean. Txosten horrek haur bakoitzaren heldze-bilakaeraren eta helburuen lorpenaren balioespen orokorra egin behar du; betiere, urte osoko ibilbidea aintzat hartuz. Txosten hori familiari entregatuko zaio.

b. Familien parte-hartzea

Familiekiko lankidetzak eta koordinazioa sustatzeak hezkuntza-interbentzioaren koherentzia bermatuko du eta haurren hezkuntza-prozesua arrakastatsuagoa izatea.

Posible den neurrian, komeni da komunikazio- eta partaidetza-bideak irekitzea, bi alderdien arteko trukea eta aberastea bultzatzeko. Halaber, horietatik jaso ditzakegun datuek gure hezkuntza-diseinua egokia den ala ez adieraz diezagukete.

Elkarriketen, prestakuntza-bileren eta familiek idatziz egin ditzaketen ebaluazioen bidez jasoko ditugu haien iritziak eta ekarpenak. Familien idatzizko ebaluazioak borondatez balioetsi ahalko ditu hezkuntza-taldearekin aurrez adostutako gaiak eta/edo ikasturtearen bilakaera orokorra.

5. ALDAGAIA

c. Haurreskolaren hezkuntza eta antolakuntza-interbentzioa

Aurreko bi atalak ebaluatzeak emango digun informazioa lagungarria izango da hezkuntza-proiektuaren ebaluazioa egiteko, eta aukera emango digu haurreskolaren antolaketa orokorra eta talde-gela bakoitzean egindako interbentzio metodologikoa aldatzeko eta/edo zabaltzeko.

Hezkuntza-proiektuaren ebaluazioak zenbait alderdiri erreparatu beharko die, lehentasunez. Hona hemen alderdiok:

- a.** Hezkuntza-praktikari buruzko hausnarketa; erabilitako baliabide metodologikoak, espazioen banaketa, materialak eta denborak, hezkuntza-proposamenen eta helburuen arteko koherentzia, hezitzailearen rola: hurrei entzuteko jarrera izatea, haien eskura egotea, etab.
- b.** Haurreskolaren antolaketa; koordinazio-bileren eraginkortasuna, lanen banaketa, pertsonen arteko harremanak, prestakuntza-jarduerak, espazioen erabilera, giro abegitsua, familiekiko harremana eta horien inplikazioa...
- c.** Hezkuntza-proiektua: testuinguruaren analisiaren egokitasuna eta doitasuna; nortasun-ikurren koherentzia; hezkuntza-printzipioak; helburu orokorrak; antolaketa-eredua; barne-araudia; ebaluazio-sistemaren eta ebaluazio-prozesuaren egokitzapena; hezkuntza-agintarien kanpo-ebaluazioa, aurrez haurreskolarekin adostua eta hitzartua; eta garrantzizkoak irizten diren beste alderdi batzuk.



6. ALDAGAIA

HEZKUNTZA-ELKARRERAGINEN ANTOLAKETA

Haurra

Bizitzako lehen urtean garatzen dira oinarritzko funtzio sentzorialak, funtzio emozionalak eta motrizitate-funtzioak. Alderdi motorrari dagokionez, jarduera erreflexuak alde batera uzten hasi eta jarrerren, ibileren, atzipenaren, begiradaren eta beste zenbait ezaugarriren kontrola handitu egiten da, pixkanaka. Haurrek beren gorputza ezagutzen hasten dira, eta horixe da, hain zuzen, beren burua ezagutu aurreko urratsa. Garai horretan hasten dira, halaber, jasotzen dituzten zentzumenezko estimulua bereizten: hotsak, zaporeak, egiturak, etab.

Pertsona helduekiko harremanen ezaugarria mendekotasuna da; beren oinarritzko beharrak asetzen dituzten pertsonetikoa, hain zuzen. Horrekin batera, lotura afektibo egonkorak eta kalitatezkoak sortzea baliagarria izango zaie, beren heltze-prozesuan aurrera egiteko behar duten segurtasuna eskuratzeko. Lotura afektibo horiek haurrekiko harreman-unetan sortzen dira: pixoihala aldatzean, jaten ematean, lotarako etzatean, etab. Esna denbora-epe luzeagoak egiten hasten diren neurrian, lotura horiek sortuko dira beste une batzuetan ere (eserita edo etzanda daudenean).

Lehen urte horren bigarren erdian, gertueneko pertsona helduak bereizten hasiko dira, eta, zenbaitetan, uzkur ager daitezke ezezagunekin.

Hezitzailearen egitekoa funtsezkoa da lehen urte horretan: haurren oinarritzko beharrei erantzuten die, segurtasun afektiboa ematen die, haien garapena estimulatzeko eta ingurunea ezagutu dezaten bultzatzen.

Keinuak, begiradak, soinuak eta objektuekiko eta espazioarekiko jarrera dira komunikazioaren muina. Urtearen inguruan esaten dituzte lehenengo hitzak, beren ingurune afektiboarekin lotutakoak.

Horrekin batera, lehen garbitasun-, lo- eta jate-ohiturak sor daitezke. Segurtasun- eta garbitasun-arauak zorrotz bete behar dira, eta espazioek, altzariek eta materialek haurrak estimulatzeko aproposak izan behar dute.

Bigarren urtean, joan-etorriak orekatuak eta koordinatuagoak izango dira. Motrizitate fina ere gero eta hobea izango da, eta hala ikusiko dugu jateko koilara hartzen dutenean, gauzak eskuez erabiltzen dituztenean, janaria mastekatzeko dutenean, eta beste hainbat ekintza egiten dituztenean.

Gorputzaren zenbait atal ezagutzen dituzte, eta izen bat ematen diete. Halaber, gai dira zenbait sentrazio eta irudi ezagutzeko; hala nola, abesti errazak edo ezagutzen dituzten pertsonen argazkiak.

Hitzik gabeko komunikazioak leku handia du oraindik, baina hitzekin konbinatzen da, eta konbinazio horrek erritmo eta intentsitate ezberdinak izango ditu, haurraren arabera. Bigarren urtean zehar hasten dira hitz-esaldiak esaten beren ekintzak adierazteko, eta, aurrerago, bi termino edo gehiagoko esaldiak osatzen dituzte.

6. ALDAGAIA

Pertsona nagusiekiko mendekotasuna leundu egiten da, beste haur eta pertsona heldu batzuekin harremanetan hasten baitira, eta geroz eta autonomia handiagoa eskuratzen baitute.

Pixkanaka, jateko, garbitzeko eta beste alor batzuetako ohiturak hartzen dituzte. Bigarren urtearen amaieran ekingo zaio esfinterren kontrolari, eta hurrekin egingo diren jarduera ugarik alderdi horren ingurukoak izango dira.

Pertsona helduak

Ikuspegi integratzailea oinarri duen haurreskolak ezin du uharte bat izan: bere ingurune fisiko eta sozialarekin elkarreraginean jardun behar du, berarekin uztartze bat bideratuz, hezkuntza, elkar banatutako lan bat bihurtuz.

Partzuergoko haurreskola batera joatea beste pertsona heldu eta beste haur batzuekin bizitzeko aukera eta erronka dakarkie hurrei. Familia-bizitzaren eta haurreskolako bizitzaren artean jarraipena dagoela sentitzen badute, komunitate bateko kide izatearen sentimendua indartuta dutela ekingo diote erronka berri horri.

Harreskoletako haurren familiek bat egin behar dute interbentzio-printzipioekin, haurren bizitza soziala osatzen duten pertsona helduek helburu berak eta hezkuntza-jarduerako eta – interbentzioko irizpide berak izan ditzaten. Adin horietan, beharrezkoa da arauen aplikazioa koherentea izatea, pertsona heldu guztien aldetik. Helduek gauza berdinak baimendu eta debekatu behar dituzte kontestu bietan.

Ildo horretatik, haxe jotzen dugu gure egiteko nagusitzat: familiekin batera lan egitea, haurren ongizate fisikoaren eta psikologikoaren alde. Horretarako, haurren hezte-prozesuan lagundu behar diegu hurrei, eta haiekin egiteko modu eta giro egokiak sortu behar ditugu, ongizate hori lortzen lagun diezaguten. Halaber, gauzak egiteko eta hurrekin harremanetan jartzeko moduak, haurreskolako hezkuntza printzipioekin bat etortzeko familiekin akordio batera heltzen saiatuko gara.

Familiekin etengabeko komunikazioa funtsezkoa da. Era beran funtsezkoa da, familiek Haurreskoletan parte hartzeko bideak eta moduak ezartzea, hezkuntza eta ikasketa baloreak, haurren bizitzan elkartasunez barneratzea lortu ahal izateko.

Asmo hori betetzeko, familiaren eta haurreskolaren arteko harreman-oinarri sendoak finkatzeaz gain, oinarri horiek berak finkatu behar dira haurreskolako langileen artean ere; hau da, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten pertsona heldu guztien artean.

Izan ere, pertsona heldu guztiok parte hartu behar dugu lan horretan, bakoitzak geure ezaugarri propioetatik abiatuz. Gure artean hitz egin, hausnartu eta akordioetara iritsi behar gara elkarrengan konfidantza izateko norabide berean lan egin ahal izateko.

Horrenbestez, aldagai honi buruzko erabakiak hartzeko, hezkuntza-printzipio hauei erreparatuko diegu:

HEZKUNTZA PRINTZPIOA	HEZKUNTZA-ELKARRERAGINEN ANTOLAKETA
1. Garapena prozesu pertsonala da.	
2. Pertsona guztiak ezberdinak gara.	
3. Garapen intelektualak pertsona osoari eragiten dio: afektuari, harremanei eta ezagutzei.	
4. Pertsona guztiok ikasten dugu modu ezberdinean, geure izate guztiak parte hartzen duela.	
5. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean ikasten.	
6. Hazteko eta ikasteko, onarpen-, segurtasun- eta konfiantza-giroa behar da, eta ingurunea egonkorra izatea.	
7. Pertsona helduen egitekoa funtsezkoa da. Behaketaren eta entzuketaren bidez, BULTZATU eta ERRAZTU egin behar dute, haurren eta ingurune fisikoaren eta sozialaren artean bitartekotza-lanak eginez.	
8. Ikasteko, proposamenek uniformeak eta askotarikoak izan behar dute, eta motibazioa piztuko duten erronkak jarri behar dira.	
9. Beharrezkoak dira bai kanpo-jarduerak (jolasa, mugimendua), bai barne-jarduerak (ikasketa-proposamen aberatsak eta doituak).	
10. Mundua ikertzeko premia.	
11. Pertsona helduen esku-hartzeek koherenteak izan behar dute.	

6. ALDAGAIA

Koordinazioa lortzea ez da erraza, eta hari buruz hausnartzea eta erabakiak idatziz jasotzea eskatzen du.

Erabakiek bost ardatz nagusi izango dituzte:

1. Hezitzaileen eta haurren arteko elkarreraginak.
2. Haurren arteko elkarreraginak.
3. Hezitzaileen arteko elkarreraginak.
4. Familien eta hezitzaileen arteko elkarreraginak.
5. Beste elkarreragin eta/edo elkarlan batzuk kanpo-eragileekin.

a. Hezitzaileen eta haurren arteko elkarreraginak. (Hezitzailearen rola)

Hezitzaileak bere lana behar den bezala egiteko izan behar dituen ezaugarri eta jarrera batzuk aipa ditzakegu.

Helburua ez da portaera estandar bat lortzea; aitzitik, garrantzitsua da hezitzaile bakoitzak bere izaera eta estilo propioa erabiltzea lan horri ekiteko.

Hauxe dio *Lobo, E.* autoreak, eta guk bat egiten dugu harekin:

Hezitzaileek erreferentziazko pertsonak izan behar dute haurrentzat, ezagunak eta egonkorak; gainera, haurrei segurtasuna eman behar diete eta haurrak estimulatu behar dituzte. Haurrekiko interesa izan behar dute eta interes hori erakutsi, eta haur bakoitza onartu behar dute, ezaugarri propioak dituzten pertsonak diren aldetik. Haurrak hartu eta balioetsi behar dituzte, eta haien arteko diferentziak, familia-testuinguruen berezitasunak, eta haur bakoitzaren garapen-erritmoa eta izateko erak errespetatu.

Ezinbestekoa da haurrak hartzeko eta haurrei entzuteko prest egotea, eta zehatz-mehatz ezagutzea bai haur bakoitza, bai haur bakoitzaren aukerak, bai haur bakoitzak behar duen interbentzio mota.

Modu berezian zaindu behar da pertsona helduaren egitekoa haurren artean sortutako gatazketan. Arau argiak eta muga zehatzak ezartzea beharrezkoa da, segurtasun-eremu bat sortzeko. Funtsezkoa da haurrentzat hezitzaileak jarrera egonkorra eta bakegilea izatea, haren gogo-aldarteak beti bera izango ez den arren. Hezitzailearen jarrera aurreikusteko modukoa izateak haurrak lasai egongo direla ziurtatzen du, eta mugak onartzen laguntzen die haurrei, pertsona helduaren afektua galtzeko beldurrik gabe.

6. ALDAGAIA

Adin horietako hurrekin lan egiten duten profesionalak:

- a.** Sakon ezagutu behar ditu haurren garapen ebolutiboa, gizarte-egoera, eskubideak eta beharrak.
- b.** Gauzak zergatik eta zertarako egiten dituen jakin behar du. Egokitze gaitasuna eta jokabide malgua izan behar ditu, sortzen diren premiei erantzuteko.
- c.** Tentsio-egoerak kontrolatu behar ditu, gehiegi inplikatu gabe. Gai izan behar du hurrei denbora eta zailtasunak gaingintzeko behar dutena emateko.
- d.** Egiatzko elkarreraginerako konpromisoa hartu behar du, eta ez du nahastu behar bere egitekoa familiarenarekin.
- e.** Egiten dituen esku-hartzeen ondorioak eta haurren lorpenak aztertu behar ditu, eta, azterketa horretan oinarrituta, segurtasunez jardun behar du.
- f.** Ikasteko grinari, eguneroko lana hobetzeko borondateari eta prestatzeko interesari eutsi behar die.
- g.** Interesa eta afektua erakutsi behar die hurrei eta familiei, eta etengabe sortu behar ditu komunikazio-bideak.
- h.** Lankideei lagundu behar die, eta koordinatu, iradokizunak onartu, ideiak trukatu eta taldean lan egin behar du.



6. ALDAGAIA

b. Haurren arteko elkarrekinak

Haurrek txiki-txikitandik izaten dute elkarrekinak interesa; zutik jartzeko gai izan baino lehen ere, inguruan dituzten haurrei begiratzea atsegin dute.

Leku batetik bestera mugitzen hasten direnean, beste haur batzuekin harremanetan jartzen dira, jakin-minak bultzatuta. Topaketa horiek, batzuetan, atseginak izaten dira, eta beste batzuetan ez hainbeste, elkarren arteko miaketak indar handiz eginak izatera iris baitaitezke.

Kontaktu horiek ez dira izaten oso luzeak, baina nahiko arrunta da haur bat beste baten atzetik ikustea, ku-ku egitera jolasten, objektuak ontzietan txandaka sartzen, etab. Haur batzuek adin bereko beste haur batzuek baino interes handiagoa izaten dute gainerako haurrekin jolasteko, baina, hala ere, errespetatu egin behar ditugu bai batzuen zein besteen aukerak. Beste aldetik, jolaskide gogokenak ez dira beti izaten adin berekoak. Adin berekoak ez diren haurren arteko harremanak bizigarriak eta aberasgarriak izan daitezke; betiere, nahikoa haur baditugu eta, handienen ekintzarako ahalmenaren aurrean, txikienak lasai egongo direla bermatzeko moduan bagaude.

Adin horietan, haurren arteko elkarrekinak gehiegizkoak izaten dira, eta hezitzaileei dagokie jarrera ezegokiak zuzentzea, elkarrekinak positiboak izan dadin. Hau da, beraz, hezitzailearen egitekoa: haurren elkarrekinerako aukerak sortzea, baina ordena jarritz, bere burua eta haurrena larritu gabe jostailuen edukizagatik borroketan, norberaren nahia inposatzeko horzkadak eta bultzakadak erabiltzen direnean, eta abarretan.



c. Hezitzaileen arteko elkarrekinak

Talde-lanak pertsonak aberasten ditu eta ikuspuntu guztiekiko elkarrekinak errazten; gainera, behar-beharrezkoa da haurren garapen ebolutiboaren jarraipen zuzena egiteko, programazioak egiteko, behaketa-lana adosteko, eta, gerora, erabakiak segurtasun handiagoz hartzeko.

Harreman horiek ez dira beti maila eta une berean gertatuko:

- Gela berean lan egiten duten arteko hezitzaileen arteko harremana. Aintzat hartu behar dugu profesional horien artean banatzen dela hurrekiko eta horien familiekiko harremanen ardura eta erabaki-gaitasun berdina izango dutela; beraz, adostu egin beharko dituzte beren esku-hartzeak, ahalik eta koherenteenak izan daitezen.
- Maila bereko hezitzaileen arteko harremanak. Helburuen, edukien, hezkuntza-proposamenen, eta materialen aukeraketaren programazioa egiteko, eta programazio hori gauzatzean izandako esperientziak eta gainerako alderdiak konpartitzeko.

6. ALDAGAIA

- Haurreskolako hezitzaileen arteko harremana. Talde-lanak ahalegina eskatzen du. Guztien arteko erabakiak hartu behar ditugu eta haurreskolaren antolaketa eta metodologia-ildo orokorra adostu.
- Beste haurreskola batzuetako hezitzaileekiko harremana: bi urteko haurren geletako hezitzaileekin, informazioa trukatzeko eta haurra eta haren familia aldaketarako prestatzeko.

Kide guztien parte-hartzea eta konpromisoa eta lanean errespetuzko eta harmoniazko giroa sortzea funtsezkoak izango dira hezkuntza-proiektua aurrera eramateko.



d. Familien eta hezitzaileen arteko elkarreraginak

Haurreskolara iristean, familia izaten da haurraren bizi-testuingurua; beraz, ezarritako helburuak betetzeko, beharrezkoa izango da familiarekiko harreman estua sustatzea eta erraztea.

Eztaba daezina da familiaren egitekoa funtsezkoa eta ordezkazina dela, haien seme-alaben garapenean eta heziketan. Akatsa litzateke haurreskolek uko egitea balio handia duen figura horri, eta familiekiko gertuko harremanaz baliatzeko aukera huts egingo balu. Halaber, ez litzateke komenigarria familiek ahaleginik egingo ez balute eta ez balute beren kabuz bilatuko gertuko komunikazio hori. Kasu horretan, parte hartu beharko genuke komunikazio hau errezteko.

Elkarrekin egin behar dugu bidea, eta gure egitekoa da harreman-bideak ezartzea, familiek eta hezitzaileek haurren heziketari buruzko irizpide komunak konpartitzeko, eta bi testuinguru horien arteko jarraipena eta koherentzia bermatzeko.

Haurra haurreskolara eramateko unea eta hura jasotzeko unea erabiliko ditugu eguneroko harreman hori aurrera eramateko. Harreman-bide batzuk sarriago erabiliko dira, eta, beste batzuk, berriz, une erabakigarrietako beharrei erantzuteko erabiliko dira.

Harreman horren oinarria bateratzea, errespetua eta elkarlana izango da, eta aintzat hartuko da bi aldeek interes berak ditugula: haurrak heztea eta haiei erreferentzia-esparru egonkorra eta segurua eskaintzea.

Harremana aldatu egingo da familiatik familiara. Familia guztiengandik ikas dezakegu zerbait, baina oso garrantzitsua da mugak jartzen jakitea, eremu pribatuan ez sartzea eta geurean sartzen ez uztea, epaituak ez sentitzen edo sentiarazten saiatzea, eta familien erabakiak errespetatzea eta geureak errespetaraztea.

6. ALDAGAIA

Honela taldeka ditzakegu harreman horiek:

Haurreskola-familia:

- Matrikulazio-unea.
- Bilera orokorra ikasle berrien familiekin, haurreskolaren funtzionamendu orokorra eta balioak azaltzeko; baita, besteak beste, adin horietako haurren ezaugarriak eta egokitzapen-prozesuaren oinarriak eta horri buruzko informazioa ere.
- Lehendik egin ez bada, haurreskola erakusteko aprobetxa daiteke une hori, eta haur bakoitzari buruz familiak bete beharreko informazio fitxa banatzeko. Fitxa hori, gerora, banan-banan komentatuko dute tutorearekin.

Hezitzailea-familia:

- **Harremanak egokitzapen-garaian.** Konfiantza- eta segurtasun-giroa sortzen saiatuko gara, haurrek errazago egin dezaten familia-testuingurutik haurreskola-testuingururako bidea.
- **Eguneroko harremana.** Haurreskolara iristeko eta bertatik irteteko uneak dira familiaren eta hezitzailearen arteko eguneroko harreman-uneak. Une horietan, haurrak izango dira “protagonista”, eta haiei buruzko zenbait gai landuko dira; esaterako, zer jan duten, nola lo egin duten, esfinterren kontrola, harremanak, lorpenak, zailtasunak, etab. Halaber, idatzizko informazioa emateko una izan daiteke, bai familiaren aldetik, bai haurreskolaren aldetik (haur bakoitzari buruzko egunerokoa).
- **Aldizkako harremanak familia bakoitzarekin.** Topaketa sistematikoak dira, ikasturtearen zenbait unetan egindakoak.
- Lehenengo bileran, familiak seme-alabei buruz emandako informazioa jasoko da (bere seme-alaben ohiturak, harreman-motak, erritmoak, etab.), eta familien zalantzei erantzungo zaie. Ondorengo bilerak informazioa trukatzeko izango dira; hezitzaileak prest izan beharko ditu hitz egiteko eta balioesteko gaiak, baina malgutasunez jokatu da, eta lasaitasunez hitz egiteko gonbita egingo zaie familiei, haien iritziak eta ekarpenak aintzat hartzeko. Topaketa sistematiko horiez gain, egun eta ordu jakin bat gordeko da astean familiek hitzordua eska dezaten, informazioa eskatzeko, kezkatzen dien zerbait azaltzeko, eta abarrerako.
- **Talde-bilerak.** Komeni da talde-bilerak egitea (hiru hilean behin), hezitzaileek haurrekin egiten duten lanaren berri emateko. Gelaren antolamenduari buruzko alderdiak azal ditzakegu bilera horretan (espazioa, materialak, etab.), baita adin horietako haurren ezaugarriak eta lortu nahi ditugun helburuak ere. Garrantzitsua da giroa elkarrekin gogoeta egiteko prestatzea, eta familiei adieraztea bai batzuek bai besteek elkarrengandik ikas dezakegula eta horrek aberastu egingo gaituela.



6. ALDAGAIA

e. Beste elkarreragin eta/edo elkarlan batzuk kanpo-eragileekin

Bere esku dituen pertsonal baliabideak eta baliabide materialak kide guztien onerako erabiltzea da ongi antolatutako komunitate baten ezaugarri nagusia.

Haurreskolak Partzuergoa erakunde publikoa da, eta hezkuntza-helburu argiak ditu, parte hartzen duen komunitateari zerbitzu bat emateko finkatuak.

Gure jarduna hobetzeko eta komunitateko baliabide guztiak aprobetxatzeko, komenigarria eta garrantzitsua da puntu komunak aurkitzea, itunak egitea eta lankidetzaildoak sortzea gure komunitatea osatzen duten gainerako erakundeekin.

Elkarriketa, konfiantza eta adostasuna proposatzen ditugu, eta koordinazio- eta lankidetz-planak egitea gune eta/edo lurralde bakoitzean eskura dauden zerbitzuekin. Hona hemen zerbitzuok:

- Hezkuntza-zerbitzuak.
- Prestakuntza-zerbitzuak.
- Gizarte-zerbitzuak.
- Osasun-zerbitzuak.
- Aisialdi- eta kultura-zerbitzuak.
- Haurreskola bakoitzaren komunitatean ematen den eta guztiontzat onura ekar dezakeen zerbitzu oro.



5.5

ZENBAIT GAIRI BURUZKO ERABAKIAK

5.5.1 Aniztasuna errespetatzea Haurreskolak Partzuergoan

Aniztasuna errespetatzearen balioa agiri osoan jasotzen bada ere, beharrezkotzat jotzen dugu puntu horri buruzko hausnarketa labur bat egitea.

Haurren Eskubideen NBEko Konbentzioak hala dio, 1. zatiko 2. artikuluan:

“Haur guztiek dute ekitatearen eta aniztasunaren errespetua nagusi diren testuinguru batean hazteko eta garatzeko eskubidea, etniagatiko, generoagatiko, familia-egituragatiko, mailagatiko edo gaitasunagatiko diskriminaziorik gabe —ez agerikoa, ez ezkutukoa, ez banakakoa, ez egiturazkoa, ez bestelakoa—”

Haur askorentzat haurreskola da, egun, familiatik gizarterako trantsizioa egiteko gunea. Trantsizio-gune horretan egiten diote aurre lehen aldiz gizartearen konplexutasunari eta aniztasunari. Halaber, gune horretan bizi dute lehen aldiz gizarteak estimatzen dituen ala ez.

Egun, immigrazioagatik, familia-egituren aldaketengatik eta beste hainbat faktorerengatik, gizartearen etengabe ari da aldatzen. Aldaketa guzti hauek, gure aldetik hezkuntza arloko erantzun bat eskatzen dute ikuspegi interkultural eta barneratzaile batetik.

Pertsonaren duintasunari eta aniztasunari errespetua izatea da gure hezkuntza-proiektuaren oinarritzko zutabea.

Herritar guztiei zerbitzu emango dien hezkuntza-eredua sortu nahi dugu, diferentziak arinduko dituen (horiek edozein motatakoak izanda ere), kaltetuenen alde; eta, bide horretan, haurren garapena erraztu eta bultzatu, eta, beharrezkoa bada, konpentsazio-lanak egin, ekitatezko eta errespetuzko testuinguruan. Izan ere, egun haurrak hazteko moduak finkatuko ditu etorkizunerako nahi dugun gizartearen oinarriak.



5. 5.2 Hezkuntza-premia berezien tratamendua Haurreskolak Partzuergoan

Heltze-erritmoa berdina ez denez haur guztiengan, haurren garapenaren zenbait unetan hezkuntza-premia berezi eta aldi batekoak agertzen dira. Premia horiek elkarren arteko erreflexio baten ondorio diren banan-banako eta zaindutako hezkuntza-arretaren bidez prebeni eta konpentsa daitezke.

Horrenbestez, garapeneko lehen urte horietan ez da erraza argi bereiztea zein diren garapen-prozesuari lotutako aldi bateko premiak, eta zein diren iraupen luzeagoko hezkuntza-premia bereziak.

Baliteke Haurreskolak Partzuergoan eskolatzen diren haurren artean jada hautemandako desoreka edo ezintasunen bat duten haurrak izatea. Desoreka motorrak edo garapenaren atzerapenak izan daitezke, ikusmen- edo entzumen-defizitak, hezkuntza-premia jakin batzuei lotutako kromosomopatiak, etab.

Gehienetan, hezkuntza-premia bereziak hautemanda izaten dira haurrak haurreskolara eramaterako, eta hezitzaileek aukera izaten dute hezkuntza-arretako baldintza onuragarrienei eta lan-programa egokienari buruzko orientazioa eta aholkularitza jasotzeko.

Hala ere, gerta liteke Haurreskolak Partzuergoan hautematea arazoa. Hala gertatuz gero, *"Hezkuntza-premia berezien arreta Haurreskolak Partzuergoan"* liburuan adierazten diren jarduera-protokoloek jarraitu behar zaie. Puntu honetako edukiak ere liburu horretatik ateratakoak dira.



5. 5.3 Hizkuntza-tratamendua Haurreskolak Partzuergoan

Pertsonen ahalmena dugu hizkuntza, pertsonekin harremanak izateko eta mundua nolakoa den azaltzeko bide ematen diguna. Pertsonok ahalmen hori dugula jaiotzen bagara ere, hizkuntza ez da, ilearen moduan, berez garatzen; aitzitik, hizkuntzak, garatzeko gizarte-ingurunearen laguntza behar du. Komunikatzeko eta pentsatzeko gaitasun hori hizkuntza jakin batzuen bidez garatzen dugu, hizkuntza natural baten edo batzuen bidez ikasten baitugu hitz egiten.

Pertsonak familian hasten dira hizkuntza lantzen; umeei ingurune horretan garatzen dute, jaiotzen direnetik, hitz egiteko gaitasuna. Eskola, berriz, funtsezko erakundea da, haurrak hezten laguntzeko. Eskolak gero eta garrantzi handiagoa du egungo gizartean, eta gero eta goizago esku hartzen du haurren bizitzan; izan ere, orain gutxi arte familiek betetzen zituzten hezkuntza-eremuak betetzen ditu eskolak. Halaxe gertatzen da, esaterako, hizkuntza eskuratzeko lehen urratsetan: haurrek 0 urte dituztenetik hartzen dituenek, eskolak bere gain hartzen du, familiekin batera, hizkuntza lantzeko eta garatzeko ardura. Eskolak familiekin batera hartzen duen ardura hori garrantzi handikoa da, eta, ondorioz, zorroztasunez landu behar da.

Agiri hau hizkuntzei eta eskolari buruzkoa da, eta bi zati ditu. Lehen zatian, ama-hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren arteko bereizketa eta horrekin lotutako zenbait kontzeptu lantzen dira —esaterako, familia-elebitasuna eta elebitasun goiztiarra—. Hizkuntza eskuratzeko prozesua aztertzen da, helduek prozesu horretan duten egitekoa, eta azken horiek sortzen dituzten inguruneak, hizkuntza komunikazioaren bidez transmititzeko. Halaber, hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko harremana aztertzen da, eta harreman hori diskurtsoaren bidez indartzeko moduak.

Bigarren zatian, hezkuntza- eta eskola-ingurunea eta ingurune horrek hizkuntza eta pentsamendua garatzeko ematen dituen aukerak aztertzen dira. Horrela, familia-ingurunearen eta eskola-ingurunearen arteko diferentzia batzuk aztertzen dira, eta azken ingurune horretan esku hartzeko oinarrizko irizpideak aurkezten dira.



1. Ama hizkuntza(k) eta bigarren hizkuntza

Ama-hizkuntza (H1) deitzen diogu jaso dugun lehenari, bere bidez hitz egiten ikasi dugunari, nahiz eta askotan bi hizkuntza ikasten ditugun ea aldi berean, biak lehen hizkuntza kontsideratzen ditugularik. Horrela, etxeko elebidunek bi lehen hizkuntza dituzte, hizkuntza bakoitza familiako pertsona jakin bat edo batzuen bidez ikasia normalean.

Umeei txiki-txikitatik ele bat baino gehiagoz hitz egiteko ohitura ez da errege eta gortesauen hezkuntza-praktika bakarrik izan. Kultura eta maila sozial guztietan ere, maiz gertatu ohi da gurasoak jatorri desberdinetakoak izan eta bi hizkuntzez egitea umeari, edota zaindariai familiena ez den beste hizkuntza bat izan eta haurrak hori ere ikastea. Beste batzuetan, talde sozial bi elkarren ondoan bizitzeak posible egin du oso goiz auzoan ikastea etxean egiten ez zen hizkuntza. Kasu horretan, *elebitasun goiztiarraz* ari gara, ama hizkuntzatik oso gertu ikasten baita bigarrena den hizkuntza (H2).

Hori gertatzen da gure artean maiz: etxean hizkuntza bat egitea eta kalean beste bat. Honela, kasu gehienetan ume euskaldunek gaztelera ikasten dute kalean, baina tamalez, ez da sarritasun eta erraztasun berberaz alderantzizkoa gertatzen, erdaldunak (gaztelera edo beste bat dela haien hizkuntza) euskaraz kalean ikastea, alegia. Arrazoi soziolinguistikoak direla kausa, erraztasun handiagoak daude harreman sozialak gaztelera bideratzeko.

Gaztelera eta euskara gure bi hizkuntza ofizialak izanik, gizartearen artikulaziorako beharrezkoa kontsideratu izan da -eta gure Parlamentuak horrela ezarri- populazio guztiari hizkuntza biak ezagutzeko posibilitateak bermatzea. Izan ere, txikitatik auzokidearen hizkuntza jakiteak harreman sozialak erraztu eta gizarteari lotura ematen baitio. Ez dago dudarik bada, gure umeek euskaraz eta gaztelera ikasteak, gure gizarteari barne lotura eman eta herriko jendearen arteko ulerkuntza erraztuko duela.

Elebidun goiztiar bihurtzea da horretarako eskura dugun posibilitaterik onena.

a. Hizkuntzak eta haurreskola

Gure artean oso urrun ez dauden garai batzuetan, eskola estatuak ofizial eta bakartzat hartutako hizkuntza irakasteko erabili izan zen, ikasleek zeukaten ama hizkuntzari begiratu gabe. Estatuak bere hartutako hizkuntzak goi mailakoak –kulturako hizkuntzak- kontsideratzen ziren eta besteak bigarren mailakoak. Estatu unitarioari berdintasuna zor zitzaionez, biztanle guztiek hizkuntza ofiziala ikasi behar zuten. Horretarako onena kontsideratzen zen ikasleek etxetik zekartena –ofiziala ez bazen, noski- ahaztu zezaten, haren ikaskuntzarako kaltegarri izan zitekeelakoan.

Nahiz eta ideia horiek zenbait kasutan -kolonialismoaren eskutik maiz- mantendu diren, XX mendea aurrera zihoan heinean, hizkuntzei zegokienez, ideien aldaketa sakonak gertatu ziren. Aldaketa horien oinarrian antropologia eta hizkuntzalaritza lanak daude. Lanok argi ezartzen dute hizkuntza guztiek balio funtzional bera dutela, hizkuntza guztiak erabiliak diren pertsona taldearen beharrian eta funtzio sozialetara egokitu eta beren garapen teknologikoetara moldatuak baitira: denak balio dute lanerako, abstrakzioarako, irudikatze, gertakizunak aurreratzeko, gertatuak kontatzeko, argudiatzeko, azaltzeko... denek dute funtzio poetikoa, denetan dago metafora eta erabilera erritualak, denetan errealtatea eta asmakuntza bereizteko mekanismoak. Ikasketa horiek ezarri zuten halaber, ez daudela hizkuntza sinpleak eta hizkuntza konplexuak, errazak edo zailak: guztiak dira oso konplexuak, nahiz eta hitz egiten duten pertsona taldeek agian teknologikoki ez duten aurrerapen handirik lortu.

Horrela, 1923an Luxenburgon Hezkuntzako Kongresuan elkartutako espezialistek eskolan ama-hizkuntzan irakasteko eskubidea defendatu zuten. Ideia hauek hizkuntza minorizatua zuten ikasleei babesa ematen zieten: eskolak ofiziala ez zen ama hizkuntza gutxitzat hartu eta abandonatzeko eragin beharrean, haren bidez ikasketak egitean, ikasleek, euren talde kulturalak eta euren hizkuntzak duintasun soziala irabaziko zuten.

Eskubide hori da gaur egun Unescok babestu eta pertsonon identitatea eta taldeen aniztasun kulturala gordetzeko behar-beharrezkoa kontsideratzen dena.

b. Ama hizkuntza ez den beste batez hezi daiteke umea?

Ama hizkuntzaz hezteko eskubidea mundu guztian da onartua eta hainbat lekutan legeek babestua. UNESCOk¹ aldarrikatzen du edozein delarik hizkuntza, umeak bere hizkuntzaz irakasteko eskubidea duela. Aldi berean, eleaniztasunaren aldeko joera baikorra sustatzeko beharra defendatzen du. Eskolak, instituzio garrantzitsua izanik, pertsona bakoitzari bere hizkuntzaz –ahoz eta idatziz- irakastea berari eta bere pertsona taldeari duintasuna bermatzen eta ziurtatzen die. Baina erraz asmatuko denez, gizarte bakoitzean eskubide hori bermatu ahal izateko neurriak eta ahalbideak faktore askoren menpeko dira. Batzuetan faktore politikoak dira, bestetan bermea zaila bihurtzen dutenak beste motatakoak dira: hainbat hizkuntzaren kasutan gertatzen den bezala, oraindik idatzita ez izatea, hizkuntza eta talde batzuk oso txikiak izatea, eskoletan migrazio hizkuntza desberdin askotako haurrak biltzea, e.a. Bere jatorri kulturala estimatzen duten gizarteak umeak bertako hizkuntzez eskolatzen saiatzen dira.

Hizkuntzek itzala eta presentzia sozial handia dutenean eta gizarte baten esparru guztietan erabiliak direnean, haien hiztunek eskubide hori zabal bermatua ikusten dute. Hau horrela izanik, logikoa da pertsona talde horiek ez izatea beldur beren seme-alabek hizkuntza galdu edo behar bezala ez irakastekoa. Lasaitasun horri esker hainbat familia erdaldun hasi ziren duela urte asko euren umeak euskaraz eskolatzen. Gaztelera egiteaz gain, euskaraz ere ikastea irabazi hutsa kontsideratzen zuten. Jokabide hau, modu batez edo bestez gertatu zen baita ere Katalunian katalanarekin edota Kanadan, ingelesa zeukaten familiarekin – azken honetan seme-alabak frantsesez ikastera bidalita. Kasu hauetan guztietan ikerkuntzak erakutsi du ama hizkuntza ondo menderatzeaz gain -ele bakarra den lekuetan bezain ondo edo hobeto- eskolako elebidunek bigarren hizkuntza ere ondo ikasten dutela, hizkuntza horien bidez eginiko ikaskuntzan ondorio onak izanik.

Programa hauek murgiltze programak izan dira deituak, non gehiengoaren hizkuntza egiten duten umeek hizkuntza minorizatuaren bidez ikasten duten. Haur Hezkuntzatik hasita, umeak elebidun goiztiar bihurtzen dira hizkuntza-bainu osoan eta horrek dakartzan abantailak lortzen dituzte: alde batetik, elebitasun aktiboak ematen duen aurrerapen kognitiboa, eta bestalde, abantaila soziala, bere gizarteko hiztun talde biak barnetik eta txikitatik ezagutuz, bietan parte hartzeko ahalmena.

Gure kasuan, umeek etxean gaztelera eta haurreskolan euskaraz egitean, hau da, murgiltze programan sartzean, elebidun goiztiarrak bihurtzen ari gara. Umeak hilabete gutxi batzuk besterik ez dituela egiten badugu hau, aldi berean bi ama-hizkuntza ari gatzazkio ematen, hau da, -haurreskola beste “etxea” dela- etxeko elebidun bihurtzen ari gara. Bi hizkuntza -etxean bat eta haurreskolan beste bat- ikaste hau irabazi hutsa da hizkuntza maioritarioa duen umearentzat.

¹ Ikus : Ouane, Adama (dir.) (1997) *Vers une culture multilingüe de l'éducation*. Hambourg. Institut de l'UNESCO pour l'Education.

Ume euskaldunentzat gaztelera sartzeko ordu “ofiziala” eskolak Lehen Hezkuntzan egingo du normalean, bere presentzia soziala hain nagusia izanik, laster berandu haste hori oso konpentsatuta gelditzen baita, eta bidez batez, ahul geldi zitekeen hizkuntza minoritarioari oinarri sendoa emateko posibilitateak bermatzen direlako.

Haurreskola hizkuntza ikasteko leku aparta da, bertan umeak nagusiarekin elkarriketa lasaiak izateko posibilitate handiak baititu. Hezitzaileek badakite umearen hazkuntzan hizkuntza dela ardatz eta euskarri, ekintza eta harreman sozial guztiak beraren gain eraikitzen baitira.

c. Komunikazioa eta hizkuntzaren hastapenak

Hitz egiteko ahalmenaz jaio gara, hizkuntza batez baino gehiagoz egiteko ahalmenaz, alegia, baina ahalmen hori gara dadila beharrezkoa da norbaitek gurekin komunikatzeko asmoa izan eta hizkuntza hor(ri)etaz egin diezagula.

Hizkuntzak modu naturalez ikasteko, komunikazioa da bide bakarra eta komunikatzeko oinarrizko baldintza da bi pertsona aldi berean zerbaitetan interesatuta egotea.

Pertsonok sehaskan ematen ditugu komunikazioaren lehen pausoak. Lehena aurpegiak identifikatzea da, umeak eta nagusiak elkarri begiratzea, “bestea” hor dagoela egiaztatzea. Gero, umeak egiten duen nagusiaren begiradaren jarraipena, hura zeri begira dabilen konturatu eta bera ere interesatuta balego bezala edo jakin guran balebil modura egitea. Hori da behintzat nagusiak interpretatzen ohi duena, umeak ere interesak eta asmoak dituela, horrela egitean oso goiztik intentzioak dituen pertsona lez kontsideratzen duelarik.

Umea eta nagusia, biok aldi berean objektu bati begira daudela, nolabait bakoitzak bestearen buruan zer dagoen badakiela pentsa daiteke: umeak nagusiarengana eramaten du begirada eta gero objektura, nagusiarengana berriz eta objektura gero, esanaz bezala “Hara, begira, bioi gauza bera interesatzen zaigu”. Izan ere, honelako komunikazio egoerak oso garrantzitsuak dira umearen hazkunderako, elkarriketaren sorrera egoteaz gain, beroietan “gaia” konpartitzen hasten delako eta solaskidearen asmoak, pentsamenduak eta arrazoiak asmatzea posible egiten digun *intersubjektibitatea* garatzen delako.

Jokabide hauek pertsonon komunikazio ahalmenen oinarrian daudenez, beroietan aritua izateak komunikazio eta pentsamenduaren trebetasunak lortzeko garrantzia handia dauka.

Normalean komunikazio ekintza hauek guztiak hizkuntzaz lagunduta egiten dira, beroiek baitira hizkuntzaren sorleku naturala. Elkarri begiratzean helduak umearen begiradak eta mugimenduak interpretatzen ditu: “gose da” “nik altxatzea nahi du” “txintxina nahi du”. Umea laster, gorputz mugimenduez lehenengoz, atzamarraz eta begiez gero, inguruan dituen gauzak seinalatzen hasten da, eta nagusiak horiek hizketa gai bihurtzen ditu, haietaz umeari hitz eginez (“Zer nahi duzu? Ura? Ura nahi duzu? Oraitxe, oraitxe emango dizu amatxok ura. Ur freskoa gure kokolotxoarentzat. Horra. Kontuz! Ez bota. Bapo!”).

d. Nagusiaren jokabidea eta bere zentzua

Nagusiaren jokabide hauei umeak beste batzuekin erantzuten die, bien artean portaeren eskema antzerako batzuk sortuz, erritual batzuk, non bakoitzak bere papera jokatzeko duen eta pixkanaka, elkarriketaren oinarriak (“zuk orain eta nik gero, gai batetaz biok”) garatuz doazen. Izan ere, protoelkarriketak dira hauek, hau da, elkarriketa propio direnak baino arinagokoak. Nagusiak eta berak elkarrekin zerbait egiten edo elkarrekin zerbaiti begiratzen ari direla ikasten du umeak hitz egiten, horrelakoetan nagusiak laguntza handiak ematen dizkiolarik: bai ulertarazteko, bai hitz egiteko ere. Honelakoetan zaindariak, umeak zer nahi duen interpretatzeaz gain, zenbait iruzkin egiten ditu umearen ustezko interesaren inguruan.

Gure adibideari jarraiki, alde batetik, ama/aita/zaindariak mundua ulertzeko eta antolatze behar-beharrezkoa den jokabide bat irakasten dio umeari: gauzak izendatzen. Hori egitean, egoki diren keinuak egiteaz gain, enfasi berezia erabiltzen du, erreferentzia edo gaia den hitzetan indar eginez (**Ura? ura** nahi duzu?). Honela, izena ematean, umeari beharrezkoa den erreferentzia argitzen dio. Laster hasten da umea inguruan dituen gauza guztiez interesatzen. Bakoitzak bere izena duela konturatuta-edo, bere atzamartxoaz banan bana seinalatzen ditu: gauza bakoitzaren izena ari da eskatzen. Momentu honetan aurrerapen handia gertatzen da umearen hizkuntzan. Deskubritzen ari da izena gauza guztiek dutela, eta horiek denak direla mintzagai.

Egia da, gauzek izena daukate eta denetaz hitz egin daiteke. Seinalatzean, nolabait, gauza horietaz hitz egin diezaiotela eskatzen-edo du haurrak, hitz egiten diotenean hainbat ikaskizun egiten baititu. Adibidez, egoeraren arabera, haurra dagoen garapen unea eta hezitzaileak duen estiloaren arabera, honek iruzkinak egin (gure adibidean, **Ur freskoa gure kokolotxoarentzat**), eta hainbat ezaugarri seinalatzen edo markatzen dizkio umeari: ekintzaren egilea (**Amatxok emango dizu ura**), hasiera edo-eta bukaera (**Horra, Bapo!**) haren nolakoa (**Kontuz!**) eta beste hainbeste jokabide, tonuaz azpimarratuz, umeari gauzen esanahia bereizten lagunduz, beti ere ekintza eta hitza lotuta eskaintzen dizkiolarik.

Izan ere, hitz egiten ez da hitzak ikasiz ikasten. Hitzak testuinguru ezagunetan ikasten dira, zereginetara lotuta, handik sortzen diren ekintzei lotuta. Hitz egitea diskurtsoak eraikitzen jakitea da, ez bakarrik hitzak esaten jakitea. Hitzak esaten jakin behar da, baina horiek ikasi egiten dira pertsonok egiten ditugun ekintzetan: agurtzen ikasten da ez “agur” edo “kaixo” egoeraz aparte esaten trebatuz, baizik eta jendeak alde egitean edo etortzean nola jokatzeko duen ikusiz eta guk ere, egoera horretan dagokigun portaera eginez: “agur” edo “kaixo” hori eta une horretan esanaz. Hori esker bereizten ditugu, adibidez, hain fina den bereizkuntza: “agur” alde egitean, “kaixo”, etortzean. Eta hori esker, solaskide desberdinekin dagoela, lotuko ditu ume elebidunak “adios” eta “agur”, “kaixo” eta “hola”.

Nagusiak ekintzari lotutako hizkuntza erabiltzen du beti, umeari komunikazioaren une bakoitzean garrantzitsuen kontsideratzen duena –lekua, egilea, ekintza, zuzenbidea, hartzailea...- errepikapenez, keinuz, tonuz eta beste zenbait estrategien bidez, azpimarratzen diola. Honela, umearen ulerkuntza ziurtatzen ahalegintzen delarik, nagusiak pertsonen, ekintzen eta gauzen arteko harremana ulertzen, esaldiaren arteko parteak bereizten eta esatekoa hitzetan jartzen laguntzen dio.

e. Formatoak

Hezitzailearen estrategia eta jokabide hauek ezinbesteko euskarriak dira umeak mundua ulertu eta hizkuntzak ikas ditzan. Bestalde, oso antzerakoak dira lehen zein bigarren hizkuntzan eta agian antzerakoago aldi berean ikasten direlarik, baina kasu bakoitzean haurrak berauek ulertzean egokitzapenak eta transferentziak egin beharko ditu hizkuntza batetik bestera. Horretarako entzuten eta esaten ari dena bi hizkuntza direla jakin behar du eta hori deskubritzeak ere, bere lana dauka. Demagun honez gero umea konturatua dela gauza guztiek izena daukatela. Bi hizkuntza ikasten ari bada, konturatu behar da baita ere erreferente berak (“ura”, adibidez) bi izen dituela.

Seguruenez, hasieran hipotesi asko egingo ditu “ura” eta “agua” bereizteko. Pentsa dezake, adibidez, haurreskolakoa “ura” dela eta etxekoa “agua”, baina laster, elebidun guztiek egiten duten bezala, bi sistema diferente direla konturatuko da eta jende eta une desberdinetan erabiliko du bata eta bestea. Horregatik ez zaio gustatuko nagusiek batzutan hizkuntza bat eta bestetan beste bat egin diezaioten. Hizkuntzak bereizten nahikoa lan daukanez, gauzak argi nahi ditu: norekin dagoen jakinda, errazago jakingo du zertan ibili. Izan ere, gauzak beti antzera gertatzen direnean, argiago dago dena. Hori da formatoetan gertatzen dena.

Formato deitzen zaie nagusia eta umearen artean beti antzera gertatzen diren komunikazio egoera erritualduei², hasieran “mikro” direnak eta pixkanaka zabalduz eta konplexuago bihurtuz doazenak. Bertan ekintzak modu sistematikoz gertatzen direnez, zer gertatuko den aurreikusi ahal izaten du umeak eta esaten zaiona ulertzeko euskarri sendoa dauka.

Bi formato mota nagusi bereiztu dira: elkarren arteko ekintzazkoak –umeak eta nagusiak elkarren artean zerbait egiten dutela, adibidez, hartu-bota jokoa, puzzle bat egin, egunero oheratu baino lehenagoko errituala eta beste asko- eta aldi bereko arretazkoak -umea eta nagusia zerbaiti begira daudela: liburu bateko irudiei begiratzea da honelako tipikoena.

Marko horietan garatzen da nagusia eta umearen arteko elkarriketa, hasieran ekintza gutxi batzuen inguruan, eta pixkanaka, zabalago eta konplexuagoekin. Egoera horietan, bai nagusiak eta bai umeak, paper bana daukate, baina laster paperok trukatu egiten dira (adibidez, lehen liburu bati begira zaindariak “Hara, begira, txakurtxo bat” esaten bazuen eta umeak “Kutxo” erantzun, nagusiak berriz “Bai, txakurtxoa”, orain umeak seinalatu eta nagusiari begiratuta dio: “Bira, txakurtxoa” eta nagusiak: “bai, txakurtxoa. Zein ondo dakizun!”). Lehen nagusiak egiten eta esaten zuena orain umeak egiten du, komunikazioaren bidez hizkuntzaren ikasbidea eraikiz.

Izan ere, egoera ezagunetan nagusiari sarri entzundako esapide eta hitz batzuk aukeratu eta esaten saiatzen da umea. Laster hasten da bere elkarriketa-txanda betetzen: hasieran nagusiaren atzetik oihartzun gisara zerbait esanaz eta egoera bakoitzean hitz bat edo beste errepikatuz, baina laster, imitatzeaz gain, sortzaletasuna erakusten du lotura eta hitz konbinaketa batzuk eginez. Laster deskubritzen du umeak hizkuntzaren bidez gauza asko lortu ditzakeela: eskatzen ikasi duenean, berak ezin duena besteek lortzen diote; bere burua erakutsi eta kokatzen du munduan: nor dela deskubritzen du; asmatu egiten du... eta gauza hauek guztiak hizkuntza bietan egiten ikasten du elebiduna denean.

² Ikus, Bruner, Jerome (1986) *El habla del niño*. Barcelona. Paidós.

Ikaskuntza bide honetan umearentzat nagusiaren laguntza ezinbestekoa da, honen jokabideak haren hizkuntza eta pentsamenduaren garapena baldintzatzen baititu. Ulertzeko, umeari egoera ezaguna izatea lagungarria zaio oso, bertan gertatzen diren gauza berriak marko ezagunean hobeto ulertzen baititu. Horrela, nagusiak marko horiek erraztu egiten dizkio umeari, berarekin erritual txikiak sortuz. Hitz egin ahal izateko ere, haurrak nagusia behar-beharrezkoa du ondoan: zerbait esaten saiatzen denean solaskidea eta laguntza izateko, ezagutu nahi duena ezagutu eta izendatu ahal izateko, noiz esan daitekeen zer frogatzeko, besteak ulertzen dioten ziurtatzeko, esate modu berriak saiatzeko, jakin nahi duena galdetzeko eta abar luze bat. Eta batez ere, istoriotxoak elkarri kontatu eta berarekin hitz egiteko.

f. Diskurtsoetan parte hartuz hitz egiten eta pentsatzen ikasten da, aldi berean

Izan ere, bizitzaren gertaera eta ekintzei lotutako hizkuntzaren bidez ikasten du umeak hitz egiten. Zenbat eta esperientzia interesgarriago, biziago eta aberatsago izan eta zenbat eta gida hobea beroietaz berba egiteko, hobeto egingo du. Bere komunikazio beharrei egokitzen zaion pertsonarekin intereseko gauzak egiten dituela ikasten du hitz egiten: piezak puzzle batean jarritz, etxeko gauzak egiten "lagunduz", nagusiaren ondoan hark egiten duena eginez-edo, irudiak elkarren artean iruzkinduz, elkarrekin zerbaitetara jolastuz eta beste hainbeste eguneroko bizitza egoeretan. Elkarriketa gaia ekintzatik sortzen da, jarduera da zeresana ematen duena eta esatea eskatzen duena. Nagusiak umeak horretan erakutsitako interesari edo esandakoari jarraitzean, haren gaiari jarraipena ematean, bere parte hartzea ziurtatzen du.

Printzipioz, dena interesa dakioke umeari, baldin eta berarekin dagoen nagusiak interes hori sustatzen dakien, baldin eta egoera eta gai askotara hurbildu eta hartan izandako esperientzia elkarriketaren bidez antolatzen laguntzen dion. Esperientziaz bi modu nagusitan hitz egin daiteke: modu narratzaileaz eta adierazpenezko moduz. Elkarriketa da modu biak garatzeko ezinbesteko jokabidea.

Ipuina narrazio mota garrantzitsu bat da, non problema bat duen pertsonaia bati problema konpontzeko gertatutakoak eta egindakoak kontatzen diren. Bertan pertsonon jokabidearen logika, asmoak eta gurariak eta hainbat barne arrazoi deskubritzeaz gain, umeak kontakizunaren jokamolde ordenatu eta eginiko batzuk ikas ditzake. Pertsonaia eta narratzailea bereiztu eta hizkuntza idatziaren estilora lehen hurbilpena egiteko ipuinak dira plazerrezko abiapuntua.

Baina beste eratako kontakizunak, bizitzan nagusi direnak ere, badira: *gertatu denaz* hitz egiten da umeekin, horrek esperientzia ordenatzen, sortutako problemak argitara ateratzen eta bizi izandakoa hitzetan jartzen laguntzen baitio. Horren bidez, bizitza guztian behar-beharrezko izango duen diskurtso mota nagusi bat ikasten du: eguneroko gertakizunen narrazioa.

Era berean, *gertatuko denaz* ere hitz egiten da, aldeztu aurretik antzerako egoeraren esperientzia izanik, hipotetizatu edo aurreratu baitaiteke. Egindako hipotesiak gertatutakoarekin kontrajartzea kausen eta ondorioen esparruan sartzea da, umea pentsamendu logikoaren lurrian sartuz. Izan ere, pentsamendu logikoa zergatia eta nolaketaren inguruan hitz eginez eraikitzen da. Gertakizunen zergatiak analizatzean, pertsonon ekintzen logikaz ari gara eta baita ere gerta daitekeen eta gertatu behar denaren arteko aldeaz.

Adierazpenari lotutako pentsamendu logikoa, kontakizunari lotutakoa bezala, ez da egun batean heltzen den zerbait, baizik eta txiki-txikitik entrenatu daitekeen arrazoitze modu bat. Eguneroko eta ipuinen pertsonaiek bizi izandako gertakizunen zergatiak eta ondorioak

umearekin hausnartzeak, gauzen nolakotasuna eta zergatiari begiratzen dien ikuspegia eskaintzeak, pentsamendu logikoa eraikitzen laguntzen diote eta interes handieneko materiala dira hezitzaile trebearentzat.

Nagusiak lagundutako elkarriketez era guztietako diskurtso motak garatzen ditu umeak. Euren bitartez ikasten du -bai lehen eta baita bigarren hizkuntzan ere- aldi berean mundua ulertzen, pentsatzen eta hitz egiten.

Baina lehen parte honen bukaera gisa, komeni da gogoratzea nagusiak haurrari eskaintzen dion afektibitate giroa dela honen garapenaren oinarria, elkarren arteko komunikazioa posible eta plazerezkoa egiten duena. Beste ikaskuntza askotan bezala, hizkuntzan ere, pertzepzioa, sentimendua eta pentsamendua oso estuki lotuta doaz: ekintzak eta egoerak sortarazten dituzten pertzepzioek eta sentimenduek gure ulerkuntza eta partaidetza baldintzatzen dute. Beroiek zainduz elkarren arteko komunikazioa -hizkuntza ikaskuntzaren habia- zaintzen dugu.



2. Ama Hizkuntza eta haurreskolakoa

Komunikazio ona ziurtatzeko, hezitzailea umeak dioena ulertzen saiatu behar da. Umeak haurreskolara joan orduko izendatzen ikasi badu, hezitzaileak inoiz esaten duena ulertzeko familiengana jo beharko du. Esate modu hori onartu eta haurreskolako hizkuntzan emango dio erantzuna, beste posibilitate bezala eskainita. Umea eta hezitzailearen artean komunikazio ona ziurtatzeko eta haurreskolako helburuak betetzeko komeni da bi arriskutatik aldentzea: ama hizkuntzaz egiten ez bazaio ez duela ulertuko pentsatzea, eta inolaz ere ez zaiola bere ama hizkuntzaz egin behar pentsatzea.

Kontutan izan behar da zurruntasuna ez dela heziketaren lagun ona, eta aldi berean, irizpideak argiak izan behar dira. Haurreskolak, eta hezitzaileak bertan, hizkuntza bat izan behar du komunikazio tresna nagusia umearekin, baina horrek ez du esan nahi umearen hizkuntza ezin dezakeenik erabili. Etxeko hizkuntza onartzeak esan nahi du ez bakarrik hura errespetatu eta estimatuko dela, baizik eta ahaleginak egingo direla umeak hartaz dioena ulertzeko. Esan nahi du baita ere, inoiz haren hitzak edo haren hizkuntza erabiliko direla elkarren arteko ulermen edota lotura afektiboa ziurtatzeko. Honek ez du esan nahi jokabide hau normala izan behar duenik, afektibitatea hizkuntzaz haratago baitago, baina hasierako momentuetan eta ume batzuen kasuan beharrezkoa izan daiteke umea onartua eta babestua senti dadin. Gazteleraren kasuan ezagutza hori erraza suertatzen zaio hezitzaileari, baina besteren bat denean umearen ama hizkuntza, hezitzailea saiatu beharko litzateke haren etxeko hizkuntzaz zenbait hitz ikasten, umea hobeto ulertu ahal izateko eta haren munduarekin lotura egiteko.

Bestalde, gogoratu behar da umeari hizkuntza batez egin behar zaiola nagusiki, hizkuntza bera ikasteaz gain, beste hizkuntzaz —edo hizkuntzez— bereizten laguntzea oso garrantzitsua delako. Izan ere, ume elebidunek kode nahasketa egiten dute hasieran, hizkuntza bat balitz modura bi hizkuntzen elementuak nahasiz. Hizkuntzen ikaskuntzan garapenaren fase bat besterik ez den hau gaindi dezaten, hizkuntzak eta haien iturriak argi izatea komeni da. Haurra haurreskolan lasai eta hezitzaileari atxikirik sentitu eta haurreskolako bizimoduan erroto dela, hizkuntzaz aldatzeko jokabidearen beharrik gero eta gutxiago izango du hezitzaileak, baina umearen ama hizkuntzari zor zaion begiruneak jarraituko du izaten hezitzailearen jokabidearen marka.

Begirune eta interes hori familiarekiko harremanetan erakusteko aukera izango du, haiei umeari bere hizkuntzaz egiteko gomendioa egingo diela, beti ere haurreskolako hizkuntza ikasteko etxeko hizkuntza ondo egitea ez baita oztopo, laguntza baino.

a. Etxetik haurreskolara bidea

Hizkuntza ez da etxetik haurreskolara desberdina izan daitekeena bakarrik. Agian horretan baino gehiago, umeek eskolatzean etxeko bizimoduak eta heziketa estiloak haurreskolarekin duten aldea izango da gehien igarriko dutena. Izan ere, desberdina da ume bakarra ala neba-arreba askokoa izatea. Familek lan segurua eta normalizatua izatea ala ez, bertan familia ingurua izatea ala ez, kulturalki hurbil egotea ala ez.

Faktore soziokultural eta ekonomiko horien artean, umearekin hitz egiteari ematen zaion garrantziak edota hitz egiteko helduek dauzkaten aukerak eragina dauka haren hizkuntzaren garapenean. Telebistak eta liburuek etxe bakoitzean duten presentziak eta umeekin erabiltzen diren moduak ere, eragina daukate.

Etxe batzuetan garrantzia ematen zaio umearekin hitz egiteari, begiratu egiten zaio hark dionari eta txalotu umearen aurrera pausoak. Entrenatu egiten dute umea zenbait gauza ikasten (koloreak, gauzen izenaz edo funtzionamenduaz...) eta nagusiekin gauzak egitera eta hitz egitera inbitatzen dute beti. Umeari gauzak irakatsi, azaldu egiten dizkiote. Ipuinak irakurtzen dizkiote eta gauzak zer diren eta pertsonaiek zer egiten duten galdetu egiten diete. Agian ume horiek besteekin parte hartzen, parekoekin gauzak konpartitzen, zentroa ez izaten ikasi beharko dute, baina etxe horiek haurreskolaren jokabidetik hurbil daude eta ez da zaila asmatzea beren umeak haurreskolan beste batzuk baino errazago integratuko direla.

Hau horrela izanik, haurreskolak erraztasun horiek izan ez duten umeei begiratu behar die bereziki, hain zuzen haur horiekin ardura hartuta, banaka eta taldetan haiekin hitz egitea bultzatuz, haien parte hartzea ziurtatuz. Izan ere, seguruenez eurak izango baitira isilen agertuko direnak. Halere, ez da ahaztu behar ikerkuntzak³ erakutsi duena: edozein etxetan umeek gehiago hitz egiten dutela eskolan baino. Aurkikuntza honek seriooki seinaltatu egiten dio Haurreskolaren zereginari: umeak sehaskatik hezteko ardura hartzean, hizkuntzaren garapenarekin konprometu serioa hartzen duela haurreskolak. Abantaila dena erronka ere, bada.

b. Orduan, nola jokatu, behar da?

Hizkuntza eta pentsamendua gara ditzan, umeari asko hitz egin behar zaio. Nahiz eta hasieran berak ez duen ezer esaten eta nahiz eta inork pentsa lezakeen ez duela ulertzen, hitz egin behar zaio. Izan ere, hitz egiten zaion neurrian ikasten du umeak hitz egiten.

Edozein une eta zeregin dira on, baina batez ere giro lasaia eta afektiboa giltza dira: umea eta gu lasai gaudenean. Banan-banako umeak aproposenak dira umearekin hitz egiteko, elkarren arteko ulermena ziurtatzeko: keinuz eta tonu aldaketaz lagunduta hitz egingo zaio umeari. Bere barreak aprobetxatuko ditugu berarekin mintzatzeko, bere negarrak hitzez eta lastanez lasaitzeko.

Jarduerak planifikatzean, denbora eta espazioa atontzean, pentsatuko dugu zer nolako posibilitateak ematen dizkiguten haurarekin hitz egiteko: hizkuntza ikasteko gu baikara hark duen iturri nagusienetako bat.

c. Keinua eta hitza lotuta

Sozializazioaren hasierako pausuetan keinu eta jokabide asko ikasiko ditu umeak, batzuk hitzei lotuta, besteak ez. Banan-banako harremana giltza da hizkuntzaren garapenean eta horretarako egunero hezitzaileak ume bakoitzarekin hitz egiteko umeak erabiliko ditu, sistematikoki. Errutinek testuinguru egokia ematen dute horretarako. Hasierako hilabeteetan, sehaskan jartzean, altzoan zutik jarrita, hankak eta besoak mugi ditzan aurrez aurre duela, bainuan, fardelen aldaketan, jana ematean... une aproposak dira umearekin hitz egiteko, ekintza eta hitza lotzeko, haren sentsazioei jarraitzeko. Hitzari lotuta hor lastanak, putzak, txaloak, imitazio txikiak: berak egiten dituen soinuak hezitzaileak errepikatu, honek egiten dituenak errepika ditzan, joko batean komunikatuz. Soinuekin esperimintatuko du umeak eta horretan, hezitzaileak bere gurariak interpretatu nahian, egiten dituen soinuei esanahia emango dio eta horrela, pixkanaka, hitzak ikasiko ditu umeak.

³ Bristol Txostenaren ondorioetako bat da hau. Ikus, Wells, Gordon (1988) *Aprender a leer y a escribir*. Barcelona, Laia.

“Hemen eta orain” “zu eta biok” erreferentzia markoak zabalduz joango dira eta horrela, aurrera joan ahala, esaten zaiona ulertzeko gero eta keinu gutxiago beharko ditu umeak eta hitzak testuinguru zabalagoan ulertzeko gai egingo da. Hezitzailea bere ondoan ez dagoela ere, hark esaten diona ulertu eta hari erantzuteko nor izango da. Baina horretarako, banakako egoeretan hitz egiten ondo trebatua behar du izan.

d. Umearen gaiari jarraitu eta zabaldu. Aditasuna

Umeak hitz edo “esaldi-hitza” batzuk esaten hasten denean, hezitzaileak “gai” horri jarraiki, esatekoa zabaltzeko abiapuntua izango dira:

-Umeak: Ma, ma, ma

-Hezitzaileak: Amatxo? Bai, amatxo laster etorriko da, laster.


Hezitzailea umearen gaiari jarraitzen eta hartaz esatekoa zabaltzen trebatu behar da, gaiari jarraitzea eta esandakoa zabaltzea, iruzkintzea, hizkuntza garatzen eta egituratzen laguntzeko oinarriko mekanismoak baitira.

Alde batetik, umeak sortutako gaiari jarraitzea garrantzitsua da oso, hari jarraituz bere aditasuna errazago lortu eta horrekin batera hizkuntza gehiago jasotzen duelako; bestalde, bere inizatiba onartzean, hitz egin dezala bultzatzen dugulako. Hasieran hitz batez adieraziko du esan nahi duen guztia (“gia”) esaldi osoa hitz horren bidez adieraziz (ogia nahi dut). Gero, 20 hilabetetik aurrera, izenari aditza, lekua, zuzenbidea edo beste funtzio markaren bat lotuko diola (“sua hori” “apatx ez ” “kea dago” “ez dut nahi”)

Elkarriketa interesgarriak eta gai anitzetakoak izanda, posibilitate handiak izango ditu umeak hitzen eta esapideen funtzioaz jabetzeko, bakoitzaren erabilera mugak deskubritzeko, beren esanahi ezberdinak ezagutu eta bere ahoan nola dabilizan frogatzeko. 2 urte inguruan hiru edo lau hitzetako esaldiak egiteko gai da ekintza (“ama lanean”), egilea (“ama dantzatzen”), lekua (“hemen Bego”), jabegoa (“zapatak Anderrenak”), existentzia eta estatuaren aldaketa seinatzen duten markak adieraziz (“orain harria ere bai” “non dago Txirri?”). Beti ere, kontutan izan behar da ume alde handia dagoela hizkuntzaren ibilbidean, aniztasuna honetan oso handia dela.

Hitz egiten ikasteko, umea saiatu behar da esan nahi duena hitzetan jartzen eta lan horretan behar duen laguntza eman behar zaio. Hezitzaileak estrategia asko erabil ditzake umeak hitz egin dezan: falta zaion hitza eskaini, hitzaren hasiera eman, nola esaten den gogora arazi... Horren guztiaren benetako testuingurua elkarriketa da, umeari interesatzen zaion eta gero eta zabalago izango den elkarriketa.

Elkarriketaren interesak umearen aditasuna erakartzen du, bertan hezitzaileak gai baten inguruan haren gogoak biltzen baitu. Izan ere, holakoetan parte hartuz trebatzen du umeak aditasuna: gaia bere interesekoa izatea da adi egoteko baldintza. Aditasunak garapen kognitiboan paper handia du eta helduarekiko elkarriketa lasai eta interesagarria, aditasuna lantzeko modu onena. Elkarriketarako aukera gutxi izandako umeek haurreskolan hain beharrezko den adi egoteko ohitura, eta ondorioz, portaerak eta ezagueraz jabetzeko, problema handiagoak dituzte.



e. Hizkuntzaren alde ludiko-poetikoa garatu

Umea kulturatze bidean, atzamarrak, eskuak edo gorputzaren parteak erabiltzen dituzten zenbait jokotxo –“Hau merkatura joan” “Txalo Pintxalo” edo “Eragiozu” motatakoak- umeak bere gorputza esperimentatu, mugimenduak kontrolatu eta sentsazio fisiko atseginak sortzeko helburua izateaz gain, alde afektiboa ere betetzen dute. Hizkuntza eurekin eta musikarekin batera doa, beste hainbeste kanta eta olerkitxoetan doan bezala: kanta txikiak, aho korapilotxoak, errima errazak, leloak... denak dira hizkuntza-iturri atseginak, euskal tradizioan oso errotuak. Hitzari lotutako alde eufoniko, poetiko edota ludikoa trebatzen dutenez, komeni da hezitzaileak honelakoen ezagutza zabala izatea.

f. Errutinak

Errutinetan hitzak garrantzi handia du. Argi behar da izan horrelakoetan ikasten dela hitz egiten, baldin eta helduak egiten duen eta hitz egiteko aukera ematen dion umeari. Askok hitz egin behar zaie umeei eta errutinek ematen duten testuinguru argiek adierazpenari eta ulerkuntzari laguntzen diete.

Portaera sozialak keinuz eta hitzez irakasten dira: agurtzen, norbaitek alde egin edo datorrenean, eskertzen, norbaitek zerbaitek ematen digunean, barkamena eskatzen eta laztantzen, min egin dugunean. Izan ere, hitza ekintzari lotuta doakionean ikasten da hoberen. Horregatik da hain garrantzitsua hezitzaileak ekintzak planifikatzen jakitea eta bertan egin eta sustatu dezakeen hizkuntzaz kontziente izatea. Errutinek testuinguru ezin aproposagoa ematen dute horretarako.

Garbiketaren momentuan kilimatxoak edota laztan goxoak eginda, bere gorputza esperimentatzen laguntzen dio nagusiak umeari eta lasaitasunezko momentu horietan hitz egiten dio, bere barreei jarraikiz hitz egiten dio, bere zaratatxoei erantzuten die. Erritual horretan egiten eta egingo denaz mintzatzen da ekintzei hitzez lagunduz (“oraintxe garbituko dugu ipurditxo hori, zikin hori” “zer ondo zauden! E? Bapo!”, e.a.). Umeak bere txanda hartuta, gero eta gehiago hitz egiten animatuko da. Esfinterren kontrola lortzen duenean, larri denean eskatu beharko du eta horretarako esaten irakatsiko zaio.

Jatorduek ere ekintzari hitza lotzeko antzerako aukerak ematen dituzte. Hezitzaileak gertatzen ari denaz eta gertatuko denaz hitz egiten du (“Hara! Zer dago hemen?” “Pure gozoa Amaia-rentzat!” “Ai zer gozo!” “Gehiago?” “Gehiago nahi duzu?”). Umeek bertan biziki ikasten dituzte zenbait esapide, geroago, beste testuinguruetan ere, euren eginkizuna gidatu edo markatuko dutenak (“Bapo!” “Akabo!” “Ez dut nahi!” “Gehiago!” “Asko”)

Jolasa hitz egiteko momentu interesgarria da, baldin eta hezitzailearekin batera egiten den jolasa den. Jolas sinbolikoak aukerak ematen dizkio hezitzaileari portaerak sustatu eta jokabideak erakusteko, beti ere ume gutxi batzuekin edota umeen aurrean hitz egiten duela: panpina mimatu (“laztana”, “maitia”, “bihotza” “mina dauka” “non duzu min?”...), haserretu (“mainarik ez”, “ixo!”) estali, hartu, jana ahora eman, erosketak egin...

Umea jolasten ari delarik, hezitzaileak lagundu diezaioke bere hitzekin, egiten ari dena deskribatuz, hartaz iritziak emanez, gertatuko denaz galdetuz, e.a.

Jolasa nork bere gorputzarekin eta materialekin esperimendatzeko testuingurua da: ohartzeko eta saiatzeko, egiteko eta desegiteko, aztertzeko eta uzteko ekintza ingurua. Bertan materialek garrantzi handia daukate, desberdinak izanik jokabide diferenteak sustatzen dutelako: oihal batek, zorro batek edota tutu batek ideia desberdinak sortarazten dituzte.

Urtebete t'erditik aurrera, egin daitezkeen ekintzak esaten eta materialak izendatzen ikasteko, hezitzaileak zenbait joko egin ditzake umekin, euren gorputzen aktibitateari (begiak estali, laguntzua laztandu, txalotu, besoak altxa eta jaitsi, eskuak buru gainean ipini, poltsikoan sartu eta atera, goilarea hartu, panpinari jaten eman, pilota hartu eta bota, zapaldu...) hitzaz edo kantuz, leloak edo hitz-jokoz laguntzen diotela. Euskal tradizioa honelako askoren iturria izanik, hezitzaileak ugari aurkitu ditzake bertan umearekin batera egitekoak.

Jostailuak biltzeko unea ezin hobea da gauzak lokalizatzeko, kontzeptu espazialak eta moduzkoak irakasteko, sailkapen txikiak egiteko ("handiak hemen sartu, txikiak hor" "gorriak bakarrik hartu") eta ekintza adierazten duten kanta edota errima txikiak kantatzeko ("Panpinak ohera, umeak etxera. Bihar berri, denok jolastera").

g. Hitz egiten taldean

Aipatu jolas txikiez gain, urte bete t'erdi ingurutik aurrera hezitzailea saia daiteke talde txikian edota handian umeak biltzen, elkarrekin hitz egiteko:

Eguneroko gertakizunen kontakizunak narrazio guztien hasieran, daude, ipuin labur gisara, askotan hezitzaileak asmatuak. Era honetako kontakizunek (zeinen eskema izan daitekeen, adibidez: Umea erori, min hartu, negar egin eta aitatzok laztandu eta laguntzok txupetea eman. Umea pozik.) kausa-ondorioak arakatzeko posibilitateak ematen dituzte. Holakoetan elkarizketa zuzena (*-Zer pasatu zaizu? esan zion aitatzok. -Erori naiz! Min hartu dut! Buaaa! -Ez egin negarrik, maitea...*) izatea ere komeni da.

Ipuinetatik hurbil dauden honelako kontakizunek **ekintzen zergatiak eta nolakotasuna**, gertakizunen segida eta pertsonen portaerak arakatzeko balioko dute. Askotan kontatuta, umeek buruz ikasten dituzte. Ulerkuntzari lotutako memorizatze hau ona izan daiteke hizkuntzaren menderakuntzarako. Irudietan oinarritzea, hartaz laguntzea ulerkuntza errazten die umei. Bestalde, ekintzen gomutarako, hezitzailearen adierazpideari laguntzeko eta umeen aditasuna biltzeko oso ondo dator kontakizunean franelograma, edo antzerako teknikaren bat erabiltzea.

Honelakoak entzuteak lagundu egiten dio bizi izandakoa kontatzen ikasteari: izan ere, hezitzaileak eragin behar du gelan denon artean bizi izandakoa edo gertatutakoa gogoratzen eta kontatzen. Adibidez, patiotik etorri eta gero han egindakoa gogoratuz: "Non egon gara?" (patioan) "Zer egin dugu han?" (txintxaunean/zibuan jolastu) "Eta zer gertatu da txintxaunean?" (Nerea erori egin dela) Eta negar egin du? (Ez, ez du egin).

Elkarrekin bizi izandakoak gogoratzean eta kontakizuna pausakitzean hezitzaileak gertatutakoa kontatzean gauzak nola aurkeztu behar diren erakutsi egiten die umei: hitza ematen die, esan egiten die, beren esaldiak amaitzen laguntzen eta eskatzen die. Umeek oihartzun gisara errepikatzen dute, kontaketa egituraz jabetzen direlarik. Hitz egiteko txandak daudela ikasten dute.

Gertatuko dena edo egingo dena aurreratzean edo planifikatzean antzerako zerbait egiten da: “Nora joango gara orain?” (“Karmelerengana”) “Eta zer eskatuko diogu?” (“gailetak”). “Nola eskatuko diogu?” (“Mesedez, Karmele, eman gailetak”). Etorriko dena aurreratzean planifikatzen ikasteko lehen pausoak ematen dira.

Honelako ekintza planifikatutakoaren bidez ikasiko dute umeek objektu edo ekintza bat eskatzen, euren sentimenduak eta beharrak adierazten, laguntza eskatzen, euren beharrak adierazten, iruzkinak egiten eta beste hainbeste jokabide. Eta horrekin batera, nagusien eta laguntxoek kontakizunen aurrean gero eta denbora luzeagoz adi egoten ikasiko dute. Korroa –txikia edo handia- parekoen aurrean hitz egiten eta haiei entzuten ikasteko aproposa da, baina bertan interesa mantentzea ez da erraza, hezitzaileak denaren kontrola eraman behar baitu, ume bakoitzak bere gauzak hitz egiteko aukera izan dezan.

Ipuina eguneroko kontakizunen jarraipen naturala da, mundu sinbolikoari lekua ematen diona, eta horregatik hain garrantzitsua. Horrez gainera, idatziz heltzen denean hizkuntza jasoari lehen hurbilketa egiteko aukera eskaintzen du. Izan ere, ipuinak bai ahazkoak eta bai idatzizkoak kontatu behar zaizkie umei. Hasieran irudietan bermatuta, behin ezagunak direla, hitzetan bakarrik oinarrituz. Hartaz, pertsonaien eta euren ekintzen eta motiboen inguruan, elkarriketa sortuko da.

Egunero, gelan ipuinak kontatzeko une bat izatea oso garrantzi handiko kontua da, batez ere etxean irakurtzeko ohitura handiegirik ez duten familietako umeentzat. Urte bete t'erditik aurrera arinago ez bada, umeek ahal dute ipuinik entzun, ulertu eta gustuko izan. Zenbat eta entzuteko eta iruzkintzeko aukera gehiago izan, orduan eta mundua ulertzeko, hiztegia zabaltzeko, jokabideen zergatiak ulertzeko, kontaketak gure kulturen egiten diren bezala antolatzen ikasteko eta hizkuntza lantzeko aukera handiago izango dute umeek. Horretarako behar dena da haurreskolan ipuin liburuak izatea eta hezitzaileak irudiak eta hitza lotuz emozioz kontatzea.

Ipuinik interesgarrienak kanonikoenak dira hasierako adin hauetan. Zentzu honetan, ipuin klasikoak –euskal tradizioak eta munduko beste askok- oso egoki izan daitezke, baldin eta umeen adinari begira, garrantzi handia daukaten zenbait gauza kontutan izaten badira:

- Ipuina, problema bat duen pertsonaia bati gertatutakoa kontatzen duena izatea.
- Gertakizun nagusi baten inguruan ekintzak biltzen dituena.
- Ekintzok, denboraren harian eraikita eta kausa-ondorio harreman argiak adierazten dituztenak izatea.
- Errepikaketak izatea: ipuin tradizioaletan ekintzak hiru aldiz gertatzen dira normalean eta horrek ipuinari interesa emateaz gain, hizkuntza esapideak ikasteko aukera handia eskaintzen du.
- Ekintzaz gain, komeni da ipuinean pertsonaiaren sentimenduak edota pentsamenduak ere agertzea.
- Problemaren soluziobidea dakarren bukaera zoriontsua izango du ipuinak.

Ipuin bera askotan irakurtzeak posible egiten du etorriko dena aurreratzea, hartaz hitz egitea eta sentimenduak erakustea. Ezagun egiten zaizkion testu horietan umea bere ezagutza zehaztuz, borobilduz eta osatuz joaten da. Ipuinaren gertakizunak, haien zergatiak eta segida eta pertsonaien erreakzioak hobeto bereganatzen ditu eta aldi berean hizkuntza trebatzen du.

Hezitzaileak, posible ikusten duen neurrian, gero eta hobeto adierazten eta esaldiak borobiltzen eskatuko dio, ipuinek eskaintzen duten errepikaketaren aukerak erabiliz.

Nahiz eta ezaguna gustukoa duten umeek, komeni da ez beti ipuin berarekin ibiltzea, baizik eta behin aldi batzuetan landu dela, aldatzea. Umeak ezagutza zurruputzen duten esponjak dira eta nagusiei bezala, gauza berriak interesatzen zaizkie. Ezagutzen dutenera bueltatzea oso garrantzitsua den arren, ipuin interesgarri eta berriek munduari buruzko jakin mina pizten dute eurengan. Beraz, aldiro ere, ipuin ezagunetara bueltatzeak merezi du, ipuin berriak ikasteak merezi duen bezala.

h. Hezitzailearen hizkuntza

Nahiz eta idatzizko hizkuntza egitean normalean euskara batua agertuko den -hura baita gure hizkuntza jasoaren eredu orokorra- komeni da hezitzailea herriko euskalkia erabiltzen saiatzea, etxeko eta haurreskolako hizkuntzaren artean zubiak eraikiz.

Ez da ahaztu behar euskalkia, etxeko hizkeratik hurbilago egoteaz gain, ahozko hizkuntzaren bide naturalena eta hizkuntza jasoaren iturburua dela. Honek ez du zerikusirik zaindu gabeko hizkuntza erabiltzearekin. Umeak bere hizkuntza eraiki eta hizkuntzaren pieza guztien arteko joskerazuzena lortu dezan, helduak argi hitz egin behar dio, hitzak eta morfemak bereizten lagunduz. Hezitzaileari dagokio beraz, analizatzeko erraztasunak ematen dituen hizkuntzaren berbeta argia eta lasaia eskaintzea umeari. Herriko hizkuntza egitea komeni da: herrikoa, baina aldi berean zaindua.

Hezitzaileak hitz egiteko modua argia eta naturala izan behar du, umeek uler diezaioten, baina ez murriztua ezta sinpleegia. Honetan, ulergarritasunaz gain, hizkuntzaren zabaltasuna eta edertasuna, eta hitzaren lilura zaintzea garrantzitsua da, bereziki ipuina kontatzean, eta horretan hezitzaileak kontatzeko duen trebezia, giltza: enfasia, tonu aldaketak, emozioa... denek inteligentzia eta gogoaren alde jotzen dute. Ondo ahoskatzen arduratu behar da hezitzailea, hizkuntza ikasten ari diren umeentzat garrantzitsua baita eredu foniko ona jasotzea.

Ipuinak eta kontakizunak egitean, narratzailearen ahotsa eta pertsonaiena bereiztea komeni da, komeni den bezala soinuak eta onomatopeiak egitea eta errimak zaintzea. Horretarako ahoz goran egingo duen ipuinen irakurketa ondo prestatzeak gomendagarria dirudi. Izan ere, emozioaren zerbitzuan dauden faktore horiek guztiek hizkuntza eta munduaren ikaskuntza erraza eta interesgarria egiten diote umeari.

